




**Julen Nafarratek Europa alderik alde zeharkatuko du txirringaz, etxeko andreen errezeta bila.** ▶8

**Ana Murugarren zinemagileak Ramiro Pinilla idazlearen *La higuera* eleberria egokituko du. Grabazioak Getxon egingo dituzte, uztailetik aurrera.** ▶16-17



# hiruka

Uribe Kostako astekaria



**63. zenbakia**

2016ko  
ekainaren 9tik  
ekainaren 15era arte

## «Orain, Kopa irabaztea da hurrengo erronka»

**Maddi Torre Larrañaga** Athleticeko erdilari sopeloztarra aurrera begira dabil, liga irabazi osteko balorazioan. ▶20



HERRIZ HERRI GETXO

## Portu Zaharra omenduz, Maiatzak 40 jaialdia

**Barikuan eta zapatuan** bertakoak eta bertako ohiturak akorduan izateko jaialdia egingo dute. ▶02



## Uribe Kostako Jaialdi Feminista

Zapatu honetarako, ekainak 11, Uribe Kostako Jaialdi Feministaren lehenengo edizioa antolatu dute eskualdeko hainbat taldek eta norbanakok. Goizeko 11:00etatik aurrera, Altzagan egingo dituzte: tailerrak, sormen kolektibotik jorratutako kale-ekintza bat, herri-bazkaria, antzerkia, kalejira bertso-desafio eta guzti, eta kontzertuak. Izan ere, jaialdiaren antolatzaileek diotenez, «dantzatu ezin den iraultza ez da geure iraultza izango». ▶12

## Akabuko martxea filma, Algortan

▶11



**Sopela Amerikako Estatu** Batuakaz lotzeko itsaspeko zuntz optikoko kablea Telefonicak kudeatuko du. ▶7

**Erandioko eta Getxoko** udalek kanpaina abiatu dute euskaraz egiteko gidabaimenaren azterketa teorikoa. ▶10

**Naroa Jauregizuria soziologo leioztarrak** Euskal Herria markaren inguruko ikastaroa antolatu du, UEUgaz. ▶15

**Muturreko Kirolak Erandion** ikusgai izango dira aste-akabu honetan. Ekimenak Mikel Martin umea babestu gura du. ▶18

# Portu Zaharreko jaialdi berria

**Maiatzak 40 ospakizun** berriak Portu Zaharreko Jai Batzordea eta Eduardo Larrea «Karlo» omenduko ditu «Txo» sariagaz.

**U**dari ondoetorria egiteko jaialdia antolatuko dute Algortako Portu Zaharrean ekainaren 10ean eta 11n. Maiatzak 40 goiburuagaz, bertakoak eta bertako ohiturak gogoan hartzeko eta portuak berak «bizikidetzako espazio gisa duen berezitasuna aitortzeko jaia» izango dela azaldu dute antolatzaileek. Jaialdiak hainbat arte-diziplina izango ditu, berbarako zinemagintza, argazkigintza, musika, pintura, poesia eta teknologia berriak. Helburua da Portu Zaharreko bizilagunen eta guneen tradizioak eta memoria historikoa sendotzea, «belaunaldien arteko erreleboa



info+: [www.4omayo.com](http://www.4omayo.com) edo [www.facebook.com/4oMayo](https://www.facebook.com/4oMayo)

bermatzeko». Halaber, ospakizunean, «Txo» sariak banatu gura dituzte: Portu Zaharreko Jai Batzordeari eta Eduardo Larrea «Karlo»ri gorazarre egingo die aurretik. Egun bi horietarako, ekitaldi ugari antolatu dituzte, baina ohartarazi dutenez, «hasiberria den ekitaldi on

guztietan bezala», egitaraua dinamikoa izango da, eta berrikuntzak egongo dira, baita gehituko diren ekimenak ere. Hori horrela, zer berri izango duten jakiteko modurik onena euren Facebookeko orria bisitatzea izango dela iragarri dute. ◀

## Ekitaldi batzuk

### Ekainak 10, barikua

**19:00** Bizkaiko txakolinaren eta ardoen dastatze eta sardina-jate girotua, Pedro Bilbao Doktoarearen plazan eta Jenaratxun, hurrenez hurren.

**22:00** Maiatzak 40 ekitaldiaren inaugurazioa eta aurkezpena, Pedro Bilbao Doktoarearen plazan.

**22:30** Bideo-emanaldia: *Algortako Portu Zaharra*. Pedro Bilbao Doktoarearen plazan.

**23:30** Gauekoa, Basagoiti etorbidetik.

### Ekainak 11, zapatua

**09:30** Pintura lehiaketa Portu Zaharrean zehar.

**12:00** Umeentzako jolasak, Etxetxun.

**12:00** Fanfarrea Portu Zaharreko hainbat txokotan.

**13:00** Korda bikotea eta poesia emanaldia, Portu Zaharrean zehar.

**19:00** Sardina-jana girotua, Jenaratxun.

**22:00** «Txo» sarien banaketa, Pedro Bilbao Doktoarearen plazan.

**Ondoren:** Bideo-emanaldiak: Laurita Siles, Kepa Acero eta Sendoa Cardoso. Pedro Bilbao Doktoarearen plazan.

## Erasoka, Garrasika eta The Tony Towers taldeak, Txorimalon

**U**dalerriko musika-talde gazteei uoltza gainean jotzeko aukera emateko eta kontzertuen eskaintza areagotu guran, Barne Barnetik Fest jaialdia antolatzeari ekin zioten aurretik Algortako hainbat gaztek. Hori hala, hurrengo kontzertua zapatu honetarako antolatu dute, hilaren 11n, Getxoko Txorimalo gaztetxean. Bertan joko dute Algortako The Tony Towers eta Garrasika musika-taldeak. Horiez gainera, orain dela hainbat urte instrumentuak alde batera utzitako Erasoka taldeak «itzuleraren» emanaldi bakarra eskainiko du gune autogestionatuan. Hitzordua 20:30ean ipini dute; egunean bertan erosi ahalko da sarrera, 4 euroan. ◀

## Modu kolektiboan borroka egitea gura du Auzokideok

**O**ndarreta litxarrerria-dendak kioskoa behintzat berreskuratzeko sinadura-batzea abiatu du, San Nikolas plaza lehengoratzeko ezinezkoa dela jakinda. Getxoko Auzokideok auzo-elkarre eta herritar taldeen plataformak deitoratu du ekimen hori aurretik egin ez izana: «orain dela 8 urte abiatu behar zen ekintza hori, auzokide, ostalari eta merkatarik guztien batasunagaz». Gogoratu dutenez, San Nikolaseko Auzokideen Elkarteak jaio berri zen obrak hasi zirenean, eta sinadurak ere batu zituzten: «2.000 baino gehiago, aste bakar batean!». Hala, etorkizunerako borroka modu kolektiboan egin beharrezkoak izango direla ohartarazi dute. ◀

## Bolue hezegunea babesteko neurri berriak, baztertuta

**A**lgortako Bolue haranaren eta Bolue eta Larrañazubi erreken balio naturalak, fauna eta flora «babezteko modurik onena» zein den ikertzea eskatzeko Talde Mistoak aurkeztutako proposamena baztertu du Bizkaiko Foru Aldundiaren Iraunkortasun eta Ingurumen batzordeak. Neurri horrez, Bolue hezegunearen «biziraupena» bermatzeko garantia «eraginkoragoa» bilatu gura izan du legealdi honetan Talde Mistoak. Hala ere, EAJ eta PSE-EE kontra agertu dira; euren arabera, hezeguneak «nahiko babes» duelako, hainbat ikerketatan agertu izan den bezala. Podemos Bizkaiak eta EH Bilduk, berriz, proposamena



babestu dute, ikerketa horrek «informazio gehiago» ekarriko lukeelako hezegune horren egoera «konplexuaren» inguruan. PPK, berriz, abstentziora jo du, proposamenean ez delako aipatzen uriolarik ez gertatzeko neurri zuzentzaileak. ◀



## AKABUKO MARTXEA

dokumentalaren aurkezpena

Aurkezpena Aitor Gizaola eta Fredi Pais egileek eskutik izango da. Eri Arrillaga eta Mikel Etxezarreta protagonisten lagunduta



**Ekainak 11, 20:00**  
Biotz-Alai plaza  
Algorta-Getxo

SARRERA LIBREA EDUKIERA BETE ARTE

Sasoz etortzea eskatzen da



argazkia: Hodei Torres

Getxo

# Jolastokia ikasleakaz eraldatuz

**Elkartoki programa garatu** du ikasturte honetan San Nikolas ikastolak, Ttipi Studio kooperatibagaz batera; ikasleen parte-hartzeagaz jolastokia diseinatu eta aldatu dute.



Gaur egungo jolastokia aztertu eta etorkizuneko diseinatu dute ikasleakaz batera.

Ikasturtea amaitzeaz dela, azken txanpan sartu da Elkartoki programa; San Nikolas ikastolakoak batera garatu dute Ttipi Studioko kideek. Helburua izan da jolastokia eraldatzea modu parte-hartzailean, elkarlanean, eta ikasleek euren patioaren diseinuan eta aldaketan esku hartuz. Horretarako, hainbat tailer eta jarduera antolatu dituzte. San Nikolas ikastolako Lehen Hezkuntzako 450 ikaslek parte hartu dute. Ttipi Studioko kideek azaldu dutenez, «ELKARTOKIn, eskola-umeek irudikatu eta eraiki dituzte zenbait lan eta esku hartzeko ereduak; asmoa izan da jolastokia eta bere dinamikak eraldatzea; tailer eta ekimenetan, berriz, ikasleek gaur eguneko jolastokia aztertu, eta etorkizuneko diseinatu

dute. Autoeraketan eta elkarlanean oinarrituta egin dute behar ikasleek. Jolastokia bera eraldatzen dabilta orain, eta, hala, jolasteko eta esertzeko artefaktuak eraiki, zoru- eta horma-irudiak margotu, eta mahai-jolasetarako espazio bat berreskuratzen ari dira».

Eusko Jaurlaritzako Sorkuntzarako Lantegiak programaren diru-laguntza jaso du ekimenak. Egitasmo esperimental honek «diseinua eta artea» ditu !lengoaia nagusizat!, eta «parekidetasun eta parte-hartzearen balioetan sakondu» gura dute, horretarako «gune baten itxura fisikoa eraldatuz». Elkartoki programaren bigarren edizioa, San Nikolas ikastolan egin dute aurtentzen; Zabala eskolan ere egin zuten iaz, baita Santutxuko Karmelo ikastolan ere. Blog batean jaso dute edizio bieta-ko esperientzia, eta aurtengoagaz, dokumental bat osatzen dabilta. ◀

bloga: [elkartoki.com](http://elkartoki.com)

## GETXOKO UDAL EUSKALTEGIA **UDA KO** IKASTARO TRINKOAK CURSILLOS INTENSIVOS DE VERANO

### 2016

ekainaren 30etik uztailaren 22ra arte  
**MAILA GUZTIAK** (80 ordu)  
 Matrikula: ekainaren 24ra arte  
 Sarrera-probak: ekainaren 16, 23 eta 27an

del 30 de junio al 22 de julio  
**TODOS LOS NIVELES** (80 horas)  
 Matrikula: hasta el 24 de junio  
 Pruebas de nivel: 16, 23 y 27 de junio

88,00 €

irailaren 5etik 27ra arte  
**AZTERKETAK PRESTATZEKO**  
**B1-B2-C1** (85 ordu)  
 Matrikula: uztailaren 22ra arte

del 5 al 27 de septiembre  
**PREPARACIÓN DE EXÁMENES**  
**B1-B2-C1** (85 horas)  
 Matrikula: hasta el 22 de julio

93,50 €



Getxo

# Genero arteko egoera aztertzen

**Emakume eta gizonen** egoeraren gaineko diagnostikoa egiteko tailer parte-hartzaileak antolatu dituzte Jabekuntza Eskolan.

Getxoko Udalak hainbat tailer antolatu ditu udalerrian, emakumeen eta gizonen egoerari buruzko diagnostikoa egiteko prozesuaren barruan, IV. Berdintasun Plana egin aurretik. Tailerron helburua da esperientzia eta egoera zehatzak identifikatzea, azterzea eta horiek desberdin bihurtzen dituzten mekanismoak identifikatzea, etorkizuneko Berdintasun Planari begira hausnartzeagaz batera. Lehenengo saioa hilaren 7an izan zen; balioen aldatetarako kultura izan zuten berbabide. Bigarren saioa, berriz, hilaren 15ean izango da. Horretan, emakumeen jabe-

kuntza pertsonalerako, talderako eta sozialerako baldintzak sortzearen garrantziaz egingo dute berba. Hurrengo egunean, hilaren 16an, «Autonomia, gizartratzea eta erraztasuna ibiltzeko: denontzako Getxo udalerria» izeneko tailerra egingo dute. Eztabaida ere zabalduko dute: askotariko bazterketa jasaten duten emakumeen esperientziez, eta euren autonomia ekonomikoa sustatzen duten baliabideez, eta inguru jasangarriagora heltzeaz jardungo dute. Azkenik, hilaren 22an, eguaztenean, ugalketari eta sexu-osasunari helduko diote, eta horregaz batera, familiarteko eta elkarteetako zaintza ere izango dute berbabide. Tailerrok Algortako Jabekuntza Eskolan (Martikoena, 16) izango dira, 18:00etatik 20:30era. Parte hartu gura dutenek hemen eman dezakete izena: Berdintasun Zerbitzuan, 944 660 136 telefono-zenbakian edo berdintasuna@getxo.eus helbidean. ◀



Tailerron ostean IV. Berdintasun Plana osatu gura du Udalak.

## Jarduera ugari egongo dira Aste Berdean, zapatuta arte

Aste Berdean sartu da egunotan Getxo, «Inbertitu etorkizun berdeago batean» goiburupean. Hilaren 5ean hasi, eta 11ra arte iraungo du. Eguenean, hilaren 9an, jarduera bi egongo dira. «Trantsizio energetikoak» berbaldi-solasaldia egingo dute Iñaki Barcena EHuko irakasle eta Ekologistak Martxaneko kideagaz, 19:00etan Villamonte kultur etxean. Ordu berean, Abrako hegaziak begiztatzeko irteera egingo dute, Bola hondartzan. Horretan parte hartzeko, beharrezkoa izango da aurretik izena ematea. Barikuan, berriz, tailerra egingo dute landareak zaintzeko eta lore-zentro bat prestatzeko, 19:00etan, Villamonteko kultur

etxean; aurretik izena eman beharra dago. Azkenengo egunean, zapatuan, urtero legez, hegaztiei eratzuna ipiniko diete Bolueko hezegunean (Ponpa-etxean, parte-hartzea zabalik egongo da 9:30etik 13:30era). Amaitzeko, beste tailer bat egongo da, hauxe: Getxoko parkeen Ilustrazio/Herbario ilustratua. Basagoiti etorbideko La Casa del Arbol izenekoan egingo dute 12:00etan; aurretik izena ematea beharrezkoa da. Horretarako 944 660 191 telefonora deitu edo ingurugiroa@getxo.eus-era mezua bidaltzerik baino ez da egin beharko, eta orduan zehaztu beharra egongo da zein jardueratan parte hartu gura den, izen-abizenak eta kontaktua. ◀

## Balkoiak eta leihoak apaintzeko lehiaketa, hilaren 30era arte

Martxan da Getxoko balkoiak eta leihoak apaintzeko lehiaketaren hirugarren edizioa. Antolatzaileek jakinarazi dutenez, jarduera horrek udalerriko ingurumenaren eta estetikaren kalitatea hobetzea du helburu. Auzotar denek parte har dezakete; horretarako, ordea, alde aurretik izena eman beharko dute, ekainaren 30a baino lehenago, Herritarren Arretarako Bulegoetan, edo mezua bidaliz ingurugiroa@getxo.eus posta elektronikoko helbidera, «balkoiak» izenburuagaz. Sari nagusia 250 eurokoa izango da, eta bigarrena, 150 eurokoa, lorezaintza produktuetan; horrez gainera, diploma bana emango diete. ◀

## Iturribarriko obrak geldiaraztea eskatu du GUK taldeak

Algortako Iturribarri inguruko urbanizazio-prozesuaren ingurumen-kudeaketa «ardurabakoa» izan dela eta auzokoentzako «kaltegarria» dela salatu du GUK taldeak. Izan ere, gogoratu dutenez, uriolen arriskua «maila gorenean» dago inguru horretan, eta «oso handia» da bertoko akiferoen kalteberatasuna. Hori dela-eta, GUK Getxok urbanizazio-proiektu hori geldiaraztea eskatuko die Udalari eta «eskumena duten instituzioei». Hala ere, obra horien guztien inguruko dokumentazioa eskuragarri utziko die auzotarren elkarte guztiei, «auzokideak izan daitezen salaketa egiten dutenak Fiskaltzaren aurrean». ◀

ikasi eta bizi izandakoa ez duzu ahaztuko

**aeK** Gurena ikasteko para entendemos pour se comprendre

**URIBE KOSTAKO AEK**  
UDAKO IKASTARO TRINKOAK  
ETA BARNETEGIAK

Leioa 944646063 · lamia@aeK.eus  
Getxo 944304734 · lauaxeta@aeK.eus  
Plentzia 946773607 · jentilbaso@aeK.eus  
Gorliz 946773646 · jentilbaso@aeK.eus

www.facebook.com/UribeKostako-AEK  
www.aek.eus/blogak/unbekosta/  
www.aek.eus

**JUAN MARI**  
Harategia · Urdaitegia

Baserriko haragia, produktu  
artisaua eta etxeko zerbizua

Las Mercedes, 31. 48930 AREETA  
94 464 41 25

txakoli  
**mota ganeTx**  
txakolina

Leioa-Unbe errepidea 34  
(Akarlanda parkea) Golerri-Erandio  
94 467 00 07 · www.txakolimotagane.com

hiruka  
zaitez!

Urtean  
**35€**  
baino ez

Trukean:  
zozketak,  
sariak ia astero,  
astekaria eguaztenero...

Erandoio

# Enplegua sustatu guran

**Udalak 31 langabetu** kontratatuko ditu behin-behinean, sei hilabetez. 640.000 euro bideratuko ditu horretarako.

**E**randioko Udalak langabezia dauzen 31 auzotarri behin-behineko lanpostu bana emango die. Ekimena aurten go Enplegu Planaren barruan dago. Daborduko, hainbat lanpostutarako izena eman, eta zozketan parte hartzeko epea zabaldu da. Oraingo, gizarte-hezitzaile, peoi, etxez etxeko laguntzaile eta astialdiko begirale izateko inskripzioak egin daitezke. Gutunez auzokideei jakinarazitakoaren arabera, Erandioko Udalak «erandioztarron bizi-kalitatea hobetzeko asmoz, udalerrian enplegua sustatzeko apustua egin du». Udalaren apustu hori aurten



Peoi postuak 23 izango dira. © ERANDIOKO UDALA

640.000 eurokoa izango da. Lanpostu denetan, uztailaren 1a hasiko dira beharrez, eta kontratuaren amaiera Gabon Zaharragaz batera helduko da. Kontratu denak jardunaldi osoak izango dira, astialdiko begiraleenak izan ezik; horiek jardunaldi erdikoak

izango baitira. Zozketan parte hartu ahal izateko, Erandion erroldatutako langabetuek inskripzio-orrria bete, eta Erandioko Behargintzan eman behar dute, ekainaren 21eko 13:30era bitartean. ◀

Info +: [Hiruka.eus/erandio](http://Hiruka.eus/erandio)

Info +: [Hiruka.eus/erandio](http://Hiruka.eus/erandio)

## Gazte Udaldian izena emateko epea zabaldu du Udalak

**B**arikura arte dago zabalik Gazte-udaldirako inskripzio-aurrekoak betetzeko epea. Behin-behineko izen ematea egin ahal izango da Altzagan, Udal Kultur Sailean, eta Astrabuduko Udal Bulegoan. Ekimena 13 eta 15 urte bitarteko neska-mutilei dago zuzenduta. Hala, 2001 eta 2003 bitartean jaiotako gazteek har dezakete parte gazte-udaldian, beti ere Erandion erroldatuta badaude. 50 leku besterik ez daude, eta prezioa 65 eurokoa da. Udalak gurasoei gogorarazi dienez, «izen-emate bakarra» egin ahal izango da «seme-alaba bakoitzeko». Inskripzioa egitean, zozketarako zenbaki bat emango diote bakoitzari. Ekainaren 14an, eguerdian, zozketa egingo dute Altzagako kiroldegian. Udaleku irekiak uztailaren 5etik 28ra bitarteko martitzen eta eguenetan egingo dituzte, 10:00etatik 17:00etara. ◀

# Goierri eta Faoetako jaiak aste-akabuan



Aste bi barru Kukularrako jaiak izango dira. © ERANDIOKO UDALA

**Faoetako eta Goierriko** jaiak San Bernabe eta San Antonio omenduko dituzte, aste-akabu honetan.

**B**arikuan abiatuta, festak izango dira Erandioko auzo bitan; Faoetan, San Bernabe jaiak ospatuko dituzte domeka bitartean; Goierriin, osteran, San Antonio jaiak hartuko ditu Martiartuk astelehenera arte. Ohi den legez, Gorpuzti jaien eta Kukularrako festen artean heldu dira San Berna-

be eta San Antonio omentzen dituzten Faoetako eta Goierriko jaiak. Biek ala biek familia-giroan gozatzeko aukerak eskainiko dituzte. Berbarako, Faoetan, Olgetan Solas familiarteko kirol-jolasetan parte hartzeko aukera izango dute gurasoek eta neska-mutilek. Erandioko Udal Euskara Zerbitzuak antolatuta, hitzordua festetako egun handian izango da, zapatuan, 19:00etan. Goierriin, berriz, lehenengo mailako kirol-proba izango da, Martiartu dorretxearen azpian. Bertan jokatu dute 640 kiloko Euskadiko sokatira-txapelketa. ◀

## Faoetako jaiak

### Ekainak 10, barikua

19:00 Txupina, eta arku-tiroaren erronka.

21:00 Pintxo-potea, afaria eta dantzaldia.

### Ekainak 11, zapatua

12:00 Puzgarriak eta haur-jolasak.

13:00 Meza.

15:00 Herri-bazkaria eta kantak trikitiagaz.

18:00 Emakumezkoen briska-lehiaketa.

19:00 Olgetan Solas kirol-jolasak.

20:30 Txitxi-burruntzi eta erromeria.

### Ekainak 12, domeka

12:00 Kalejira eta dantza-erakustaldia.

17:30 Tiragoma-txapelketa.

20:00 Azken traka.

## Goierriko jaiak

### Ekainak 10, barikua

21:00 Musika, txosnan.

### Ekainak 11, zapatua

09:00 Sukalkia (14:00etan, aurkezpena).

17:30 Lur-gaineko Euskadiko sokatira-txapelketa, 640 kilokoa.

17:30 Umeentzako tailerrak.

20:00 Sukalki-lehiaketaren sariak.

20:30 Diskoteka umeentzat, Xaiborregaz.

21:00 Saiheski-jana, doan.

24:00 Erromeria Garilak 26 taldeagaz.

### Ekainak 12, domeka

12:30 Eliz ospakizuna.

17:30 Umeentzako tailerrak; idi-probak.

### Ekainak 13, astelehena

12:00 Meza.

12:30 Hamaiketako nagusientzat.

## Erandioztarrak ez dira Urdulizko ospitalera joango

**O**sakidetzak atzera egin eta baimenduko du erandioztarrek Gurutzeta ospitaleko erabiltzaile izaten segitzea. «Hasieran pentsatu genuen ideia ona zela [erandioztarrak] Urdulizera joatea, modernoago jaioko den ospitalea delako eta zerbitzu ona emango delako. Alkateagaz egon ginen; ni neu hainbat alditan batzartu naiz alkateagaz. Jendea kezkatuta zegoen irisgarritasunagatik, eta benetan ez da arazoa leku batera ala bestera joatea. Urdulizera joateak abantailak zituen. Gurutzetako ospitalera joateak beste batzuk ditu, distantzia aldera. Azkenean erabaki dugu Erandio osorik Txorie-rigaz batera Gurutzetan geratzea». Horrela azaldu du egoera Jon Darpon Osasun sailburuak, Javier Vizcaino kazetari astrabuduarrak egindako elkarrizketa batean. Gaia martxoan piztu zen, jakin zenean Erandioko erreferentziatzako ospitalea Urduliz izango zela, Gurutzetako barik. Orduan, «Osakidetzaren erabaki hori kezagarritzat jo» zuen EH Bilduk. Euren ustez, ospitalea «urrunago» dago, eta garraio publikoan erandioztarrek «erraztasun gutxiago» izango dituzte. Alkateak iragarri zuen Jaurlaritzagaz berba egingo zuela. Azkenik, 1.500 lagunek Internet bidezko sinadura-bilketan izena eman zuten lekualdatzearen aurka agertu eta Osakidetzari atzera eginarazteko. ◀



Begire nago begire

**JOSU  
ESNAOLA ARANGUREN**  
Helduen euskalduntzean  
irakasle

## Euskara baino kontu inportanteagoak

**O**fizialki bada ere, bihar hasiko da hauteskunde kanpaina. Hauteskunde orokorrak, hau da, niri behinik behin, hain urrun lotzen zaidan Madrileko legebiltzara osatzekoak. Gainera ezin ahaztu legebiltzar horretan ez dagoela euskara erabiltzerik. Uste dut horrek argi uzten duela zer-nolako jarrera daukaten batzuek eta besteek hizkuntza aniztasunarekin.

Baina iruditzen zait alderdiek euren egitarauak azaltzean, baldin eta azaltzen badizkigute, ez dutela horretaz hitzik esango. Izan ere, nola ez, euskara baino kontu inportanteagoak daude. Gainera zer esango dugu bada bizkaitarrok, 1613ko abenduaren 10eko Batzar Nagusietan arautu baikenuen gaztelera alfabetatua izan beharra zegoela batzarretako asanbladetara sartu ahal izateko?

Bai, badakit ordutik haize askok astindu dutela gure lurraldea, gizartea asko aldatu dela, eta jada Batzar Nagusietako kide izateko ez dela eskatzen horrelakorik. Beharrik ere ez; gaur egun, euskaraz ez bezala, guztiok gaztelera alfabetatuak gara-eta. Hala ere, oraindik hor daukagu 1978ko Konstituzioan gaztelera ezagutzeko derrigor-tasuna.

Eta zer gertatuko litzateke, hizkuntza ofizial bi dauden lurraldeetan hautagai izateko bi hizkuntzetan alfabetatua izatea derrigorrezkotzat ezartzea proposatuko balu alderdi edo koalizioaren batek? Ez dut pentsatu nahi nolakoak entzun beharko genituzkeen: lardieratzaileak, baztertzaileak, intoleranteak, faxistak, zapaltzaileak ...

Lasai. Ez da horrelakorik gertatuko. Nor ausartuko da hauteskunde kanpaina horrelakorik eskatzen? Nor ausartuko da bere teiltura harriak jaurtitzen? Izan ere, nola ez, euskara baino kontu inportanteagoak daude. ◀

## Leioa



Kita jaso ezin dezaketen merkatariak telefonoz edo helbide elektronikoz eska dezakete.

# Txantxangorria, herriko dendetan

**U**dalerriko merkatarien artean, *Euskararen txantxangorria* kanpaina zabaltzen dabil Udala. Egitasmo horren helburu nagusia herritar denek euskaraz egiteko gonbidapena egitea da, erabilera gero eta handiagoa izan dadin eremu eta zerbitzu publikoetan, Agintari leioaztarrek merkataritzaren hedatu gura dute euskararen aldeko kanpaina, eraketak ere euskaraz egin ditzaten herritarrek. Horretarako, Udalak kit berezia banatuko du

merkatarien artean; 540 saltokitara heldu gura dute. Jendaurreko lekue-tan txantxangorria jartzea da asmoa; horrela enpresa edo denda horretan euskaraz egiteko gaitasuna daukaten langileak daudela adieraziko dute.

Daborduko, kita jasotzeko aukera daukate merkatariak goizeko ordutegian, bai Leioako Behargintzan (Mendibil kalea 3), bai Euskara Zerbitzuan: Kultur Leioako (Jose Ramon Aketxe plaza 11) laugarren solairuan. ◀

info+: 946 072 576 / euskarazerbitzua@leioa.net

## Udatxikin izena emateko epea, zabalik, ekainaren 10era arte

**E**kainaren 10era arte egongo da zabalik Udatxiki egitasmoan izena emateko epea. 2010etik 2013ra artean jaiotako ume leioaztarrei dago zuzenduta egitasmo arrakastatsu hori; era askotako ekintzak egiteko aukera ematen die umeei. uda aldean. Ohi den legez, Udatxikiren ordutegia 09:00etatik 14:00etara izango da; haurtzaindegi-zerbitzua ere egon-

go da 08:00etatik 09:00etara. Ekintza denak Altxaga ikastolan, eta Mendibile eta Artatza-Pinueta ikastetxeetan egingo dituzte. Udalaren Hezkuntza Sailean (Kultur Leioako 4. solairuan) eman beharko da izena, 09:00etatik 14:00etara. Matrikularen prezioetik kanpo daude jantokiaren eta garraioaren zenbatekoak. ◀

info+: 946 072 576 / hezkuntza@leioa.net

## Ekainaren 18an zabalduko dituzte kanpoko igerilekuak

**T**orresoloko igerilekuak hilaren 18an zabalduko dituzte, udal arduradunek iragarri dutenez. Horrez gainera, erabiltzaileek harrera-zerbitzua izango dute 946 004 475 telefono-zenbakian, eta igerilekuen atezaindegian, 10:00etatik 13:30era eta 16:00etatik 19:30era. Sei hektareako Pinosolo parkearen ondoan daude igerilekuak; jolaserako, kirolerako eta atsedenerako eremuak dituzte, besteak beste: familia-igerileku ludikoa, txikienezko urputzu desberdinak, belarrezko solarium-eremua dutxakaz, tenis-pista bat eta zazpi padel-pista. Halaber, aldagelak, komunak, taberna eta aparkalekua ere badaude. ◀

## Sabino Arana kalean oinezkoak lehenestea eskatu diote Udalari

**C**ampuseko tranbia Sabino Arana kaletik pasatzearen inguruko eztabaida teknikoa eta herritarren artekoa burutu arte, proiektua atzeratzea eskatu diote Eusko Leioak, EH Bilduk eta Auzotik elkarteak Udalari. Euren ustez, tranbia egitea eta kalea oinezkoentzat jartzea «kontrajarriak» dira. Oposizioa alderdi politiko bi horien eta auzokideen elkartearen iritziz, «tranbia Sabino Arana kaletik edo Udondoko bulebarretik pasatuko balitz, biek ala biek oinezkoentzako hiribideak izateari utziko liokete». Aipatutakoek diotenez, «garraio alternatiba ezberdinak daude, herritarren beharrik asetzeko, eta tranbia baino eraginkorragoak». Eusko Jaurlaritzak maiatzaren 31n eman zion oniritzia ETS Euskal Trenbidea Sarearen eta Leioako Udalaren arteko elkarlanari; Sabino Arana kalea konpondu ostean, tranbia pasatzeko lanak egin gura dituzte agintariak. ◀

Kalitatezko irakaskuntza euskaraz

**BETIKO**  
IKASTOLA

- 0-16 urte bitartean kalitatezko hezkuntza euskaraz.
- Ingelesa 4 urtetik aurrera. Frantsesa DBHn.
- Zerbitzu ugari: autobusa, jantokia, askaria, zaintza.
- Eskolaz kanpoko jarduerak ugari.
- Ikastolen Elkarteko ikastola bakarra Leioan.

Artaza auzoa, 84. 48940 LEIOA  
94 464 23 64/94 464 33 07  
info@betikoikastola.net  
www.betikoikastola.net

**ARTOLOZAGA**  
ANAIAK  
**Tailerrak**

Mekanika · Karrozeria · Elektronika

**Sopelan**  
Gatzarrine z/g  
94 676 00 13  
94 676 38 14  
www.talleresartolozaga.com

**Sestaon**  
Miguel Servet, 6  
94 472 13 74

**BOSCH**  
Service  
Car Service

Jatorrizko bermea mantentzen dugul!

## Sopela

# Edukiontzi marroiari, zabalpena

**Orain dela hiru** urte ipini zituzten; orain, sistema berri gura dute, ordea, etxebizitza gehiagotara heltzeko asmoz.

**H**ondakin organikoaren bidez hobetu gura du Sopelako Udalak. Zerbitzu hori 2013tik dago martxan, baina 2016an berri egingo dute etxebizitza gehiagotara heltzeko; bizilagun gehiagori hurbildu eta zerbitzu hobea eskaini gura dute, agintari sopoloztarrek adierazi dutenez.

Gontzal Herмосilla alkatearen berbetan, «birziklatze organikoak onura edo abantaila asko eskaintzen dizkigu; besteak beste, gutxiago kutsatzen du, eta hondakin gutxiago bidaltzen ditugu zabortegira. Baina, batez ere,



Auzokideen zalantzak argitzeko, informazio-guneak ipini dituzte hainbat egunetan.

hurrengo belaunaldiei Sopela hobea eskaini ahal izango diegu». Aldaketa nagusiak izango dira, alde batek, edukiontzien sarraila denak aldatzea. «Garrantzitsua da edukiontzian hondakin organikoak besterik ez uz-

tea, konpostaren kalitatea bermatzeko», udal arduradunek nabarmendu dutenez. Horregatik, erabilera intentsibora eta herriko baldintza meteorologikoetara egokitutako sarraila gogorragoak ipiniko dituzte. Horregaz

batera, giltzak ere aldatuko dituzte, kalitate handiagoa izan eta luzeago iraun dezaten. Beste alde batetik, hamar edukiontzi berri ipiniko dituzte, zerbitzua apurka-apurka udalerriko gune denetara hurbiltzeko. Horrez gainera, hondakin-mota gehiago bota ahal izango dituzte auzotarrek bostgarren edukiontzira: lehen, hondakin berde gordinak, lorategiko hondakin txikiak, fruitu lehorren azalak edo ogia sar zitzaketen. Hemendik aurrera sukaldeko hondakin berdeak ere utzi ahal izango dituzte; besteak beste, pasta, arroza, lekaleak...

Azkenik, edukiontzi marroia aurretik ere erabiltzen zuten bizilagunek giltza euren bizilekuan jasoko dute. Udalak zabalduko datuen arabera, biztanleek sortutako hondakinaren %42 konposta daitezkeen hondar organikoak dira; haiekaz kalitatezko ongarria lor daiteke. ◀

## Telefonikak kudeatuko du urpeko zuntz optikoko kablea

**A**piril erdialdean Sopelako itsas-hondoa aztertzen ibili zen Meridian ontzi ingelesa; Virginia estatutik (AEB) itsasertz sopoloztarre zuntz optikoko kablea ekarri gura zutela zabaldu zen orduan. Orain aste bi ezagutzera eman zuten Facebookek eta Microsoftek akordioa lortu dutela zuntz optikoko kable hori itsaspean eraikitzeko. Azpiegitura horrek Europa eta Ameriketako Estatu Batuak lotuko ditu, Marea izeneko proiektuaren barruan. Facebookek eta Microsoftek sinatu duten kontratuaren arabera, 2016ko abuztuan hasiko dira kablea jartzen, eta 2017ko urrirako amaituko dute. Gaineratu dutenez, Telefonikaren filial batek kudeatuko du. Telxius

da Telfonicaren filial hori. Urpeko kableak 6.600 kilometroko luzera izango du, eta Virginia Beachetik (AEB) abiatu eta Sopelatik sartuko da Europara. Dirudenez, kablea Arriateran lehorreratuko dute 10 metroko sakoneran, hondartzaren harearen azpitik. Telefonikak gaur egun daukan kablesareagaz lotuko dute San Pedro eliza ondoko telefonia-enpresaren eraikuntzara heltzeraino.

AEB eta Europa lotuko dituen kable hori Ekialde Hurbileko, Afrikako, Asiako eta Latinoamerikako beste sare batzuek egongo da konektatuta. Zuntz optikoko zortzi pare kable edukiko ditu, eta, hasieran, 160 terabit segundoko (Tb/s) igorriko ditu. ◀

## Hondartzaren ondoan aparkatzen dutenei kobratzen hasi zaie

**E**kainaren 1ean hasi zen hondartzaren ondoan irailaren 30era arte iraungo du. Aurreko urteetan legez, denboraldi osoan, Sopelako hondartzaren inguruetan (Barinatxe eta Arriateratik) aparkatzeagatik ordaindu egin beharko dute sopoloztarrek zein kanpotik datozenek. Guztira, 1.297 aparkaleku egongo dira, eta ordutegia 10:00etatik 20:00etara izango da. Ordaindu beharrekoari dagokionez, ordu erdiko lehenengo frakzioak 0,35 euroko salneurria izango du; ordu erdiko hurrengo frakzioek 0,30 euroko prezioa izango dute, gehienez 6 euroraino heldu arte. Sopelako TAO zerbitzua Ipark enpresak kudeatzen du. ◀

info+: 617 315 753

## Gynkana eta jaia egingo dituzte Sopelako ludotekan

**S**opelako Ludotekak hainbat jarduerara antolatu ditu ekainerako. Lekuak mugatuak direnez gero, aurretik izena ematea beharrezkoa da. Hala, egun bi lehenagora arte egongo da zabalik hilaren 18ko gynkanan izena emateko epea. Ludotekako ardura-dunek zehaztu dutenez, 4 eta 12 urte arteko umeei zuzendutako jarduerak izan arren, umeek ohiko txandan joan beharko dute: txikiak goizean, eta nagusiak arrastian. Bestalde, ekainaren 25ean ikasturtea amaitzeko jaia egingo dute, 10:30etik 14:00etara. Izena emateko azken eguna hilaren 23a izango da. Sopelako ludoteka Kurtzio kultur etxean dago. ◀

izen-ematea: ludoteka@sopelana.com

## Berango

# «Etxeko sukaldaritza nabarmendu gura dut»

**Izeko Mertxek janaria** prestatzeko duen abileziaz jabetuta, horren antza duten andreen bila ibiliko da Europan zehar Julen Nafarrate Aurrekoetxea berangoztarra.



Bidaian zehar, egunez egun kronikak, argazkiak eta bideoak argitaratuko ditu Nafarratek, sortuko duen blogean.

IKER RINCON MORENO ▶

**J**ulen Nafarrate Aurrekoetxeak Europa hegoaldeko kostalde osoa zeharkatuko du etxeetako benetako sukaldaritza ezagutzeko, etxe-ko andreak egiten dutena, alegia. Hiru hilabete emango ditu, eta 3.000 kilometro baino gehiago egin ostean, gurera bueltatuko da; den-dena txirringa gainean.

**Txirringa hartu, eta Europa alderik alde zeharkatuko duzu hurrengo hiru hilabetean. Zer dela eta?**

Europan zehar bidaiatzeko deialdi bat atera zuen Donostia 2016k, hainbat alorri lotuta. Nire kasuan, sukaldaritza lotuta egon behar zuen, baina nik sukaldaritzaz oinarritzea bakarrik dakit. Proiektua egiteko gogoia nuen; orduan, nire izeko Mertxek oroitu nintzen. Bera da, Euskal Herriko etxe askotan legez, betiko sukaldaritza egiten duena, kalitatezkoa... Orduan, horregaz lotu gura izan nuen.

**Laster ekingo diozu abenturari...**

Bai, ekainaren 20an hasiko dut abentura Atenasen, eta Grezian zehar ibi-

liko naiz uztaillaren hasierara arte. Ondoren, Italia ia puntarik punta egingo dut, gero ferry bat hartu, Sardinia, Frantziako kostaldea zeharkatu eta Kataluniara joango naiz. Azkenik Aragoi eta Nafarroa zeharkatu, eta irailaren 18an Donostiara heldu behar dut. Guztira, 3.300 kilometro egingo ditut, den-dena txirringaz.

**Bidaia horretan, zein izango da zure eginbeharra?**

Nire helburua betiko sukaldaritzaren adierazleak diren emakume nagusiak topatzea izango da. Izan ere, Europan

ere, gurean gertatzen dena jazotzen da kanpoan ere: meritu guztiak gizonetakoak jasotzen dituzte, baina gure etxeetan beti egon ohi da emakume bat kalitate handiko sukaldaritza egiten duena, baina horiei ez zaie inolako errekonozimendurik egiten. Hori dela-eta, horren garrantzia nabarmendu gura dut nik. Horretarako, Europan zehar halako emakumeak topatu, euren sukaldarino sartu, euren errezeptak landu, jaso eta eurek emandako osagaiak batzen joango naiz, eta bueltatzen naizenean nire izeko Mertxek horiekaz denakaz menu bat egingo du! Hori dela-eta, proiektuak «Izeko Mertxeren osagaien bila» du izena.

**Zein zailtasun aurreikusten dituzu abenturan?**

Alde batetik, egunero mugituko naizenez, herrietara berandu helduko naiz. Horrek zailtasunak eragingo dizkit, norbaitek bere etxeko atea zabaltu, hura ezagutu eta bere errezeta jaso behar ditudalako... hori erronka bat izango da. Bestetik, bizikidetzatza. Nigaz batera, beste lagun bi etorriko dira; logistikaz arduratuko dira. Ez dugu elkar ezagutzen, eta hori beste erronka bat izango da, egun gogorak egongo direlako, tentsioak, nekea... hori guztia kudeatzea inportantea izango da.

**Eta hizkuntza aldetik, zelan moldatuko zara herrialde horietan guztietan?**

Emakume nagusiak topatu behar ditudala kontuan hartuta, badakit gehienetan horiek ez dutela ingelesez jakingo. Beraz, bitartekariakaz, sentsazioen bidez, eta gorputz-hizkuntzagaz moldatu beharko... Keinuen bidez asko transmiti daiteke.

**Zer deritzo zure izekok horri guztiorri?**

Kezkatuta dago, alde batetik bizikletaz noalako, eta hori arriskutsua delako, eta, bestetik, ez dudalako bere janaria jango, kar, kar. Alde horretatik kezkatuta dago, baina nik uste dut ilusioa egiten diola. ◀

## Baztanen egonaldia antolatu dute, ekainaren 27tik 30era

**U**ddaldia etxean botata ez emateko, egitarau oparoa antolatu du Udalak aurton. Hala, udaleku irekiak antolatzeaz gain, Baztan (Nafarroa) ingurua ezagutzeko, lau eguneko egonaldia antolatu dute, hilaren 27tik 30era bitartean. Horretaz gozatu gura dutenek, udaleku irekietan bezalaxe, hilaren 10era arte izango dute aukera izena emateko. Egonaldia 15 eta 18 urte arteko gazteei dago zuzendu-

ta. Hala, Berangon erroldatuta dauden neska-mutilek 90 euro ordaindu beharko dituzte; gainerakoek, berriz, 180 euro.

Egonaldian, gazteek honako jarduerak hauekatz gozatu ahal izango dute: Bertizeko abentura-parkea, raftinga Bidarrain, gau-belak, Kontrabandisten ibilbidea, eta jolasak, besteak beste. Egonaldia Elizondoko Kortaxiar aterpetxean izango da. ◀

## Uda osoan itxita egongo da Berango Antzokia

**I**kasturteari amaiera emateagaz batera, udari ondoetorria egiteko garaia heldu da. Hori dela-eta, udaldian Berango Antzokiak atea itxiko ditu. Datorren urriaren 1era arte egongo da zarratuta Berango Antzokia. Hala ere, antolatzaileek jakinarazi duteenez, ekainean ekitaldi bi egongo dira. Lehenengoa ekainaren 12an izango da, domekan, arrastiko 19:00etan. Emanaldi horretan, 2015-2016 ikastur-

tean Udal Dantza Eskolako neska-mutilek ikasitako guztia erakutsiko dute jendaurrean. Bigarren ekitaldia, berriz, handik hamar egunera izango da: ekainaren 22an, eguaztenean, hain zuzen ere. Horretan, Udal Musika Eskolaren ikasleek doinua jarriko diote antzokiari, bertaratuko diren guztien gozamenerako. Hitzordua 18:30ean jarri dute. Ikuskizun biak doakoak izango dira. ◀

## Urduliz

## Ospitalea «%100 publikoa» izatea aldarrikatzeko lanuztea

Hil honetan zabalduko dute Urdulizko ospitalea. Horren "privatizazioa salatzeko" ordu biko greba-deialdia egin dute ekainaren 14rako, martitzena, Satse, ELA, LAB, CCOO eta ESK sindikatuek. Salatu dutenez, «Osakidetza osasun publikoaren kontura negozio pribatua handitzen saiatzen ari da, eta sindikatuok ez dugu beste lapurreta bat modu baketsuan egiten utziko». Lanuztea 13:00etatik aurrera izango da.

Adierazpen bateratu batean azaldu dutenez, Osakidetza «urtero 330 milioi euro gastatzen ditu berezkoak dituen zerbitzuak privatizatzeke». Era berean, Urdulizko ospitalearen kasuan, garbiketaren privatizazioak urtean 100.000 euroko gailuzko ekar dezakeela ohartarazi dute. Halaber, salatu dutenez, «Osakidetza garbiketa-zerbitzu gehien esleituta dituen enpresako zuzendaria, Garbaldikoa, Euzkadi Buru Batzarreko (EAJ) kidea izan da».



Horrez gainera, gogorazi dute argitu barik segitzen duela zelan kudeatuko dituzten ospitalearen funtzionamendurako ezinbestekoak diren hainbat zerbitzu, berbarako: garbiketa-, mantenu- eta sukalde-zerbitzua. Ohartarazi dutenez, ospitalearen irekiera «desastrea» izaten ari da, «eta ez soilik langileen kudeaketaren ikuspuntutik». Izan ere, «behar bezalako azpiegitura barik» zabalduko da erakina. Leioa eta Erandioko herritarrak Gurutzetako ospitalean arta ditzaten ere eskatzen dabilta, besteak beste. ◀

## Gazteentzako udako programa bi antolatu ditu Udalak

Udalerriko 12 eta 18 urteko neska-mutilek uda «bikain» pasatzeko programa bi antolatu ditu Urdulizko Udalak. Lehenik eta behin, Nafarroak ezkututzen dituen sekretuak ezagutzeko egonaldia antolatu dute hilaren 27tik 30era. Baztanen izango da egonaldia, Elizondoko «Kortarixar» aterpetxean, hain zuzen ere. Hala, lau egun horietan, abentura parkeaz, raftingaz eta mendi-ibilbideez gozatzeko aukera izango dute.

Bestalde, uda Urdulizen bertan gozatzeko, udaleku irekiak antolatu dituzte, uztailearen 5etik 22ra bitartean. Denbora tarte horretan, izena ematen duten gazteek surf ikastaroa, Eureka! zientzia museora bisita, igerilekuak, tailerrak, afari tematikoak eta beste hainbat jarduera izango dituzte gozagai. Programa bietan izena emateko Kultur Etxera edo Gaztelekura jo beharko da, hilaren 12a baino lehen. ◀

info+: [gazteku@urduliz.net](mailto:gazteku@urduliz.net) / 688 846 190



Ttipi-ttapa

IRATXE MARTA LINARES  
AEK-ko irakaslea

## Ez zait futbola gustatzen, baina...

Zorionak neskak!!! Eta ez naiz egun hauetan pil-pilean dagoen eztabaidan sartuko: gabarra bai, gabarra ez ... hauxe ez baitzen aukeratuta nuen gaia. Baina emakumezkoen kirolari buruzkoetan sartu baino lehen, Athleticen neskek zoriontzan hasi behar dudala pentsatu dut.

Egia esan Athleticen neskek titulua irabazteak goitik behera ipini dizkit ideiak. Ez nuen futbolari buruz hitz egin nahi, ziurrenik neskek lortutakoa komunikabide gehienetan agertuko delako. Zer esanik ez, Garbiñe Muguruzaren azken lorpena eta, neurri txikiagoan, Bera-Berako nesken palmaresa.

Baina nolako oihartzuna izan du Ohorezko Dibisioan Getxo Arteako emakumeek lortu duten 5.postuak? Ala 1. Dibisioan Leioa Waterpolo taldeko neskek hirugarren gertatzeak?

Ez naiz kirolzalea, onartu behar dut, baina azken boladan emakumezkoen kirol gutxituekin izaten ari naizen harremanak *hooligan* ukitua eman dit, eta nire *hooligan* pentsamendu horretatik ez dut ulertzen zergatik batzuen tituluek besteek baino balio handiagoa izaten duten.

Kirolaren funtsean ez dago mugitzen den diruaren arabera klasifikaziorik, ez dut uste, behintzat. Hala ere, komunikabideetako kirol ataletan ikusten dugu kirolak sexu eta diru kopuruaren arabera banatzen dituztela, eta horrek haserrarazten nau. Zeinek bultzatzen du sailkapen hori? Komunikabideek? Klubek eurek? Zaleek? «Anaia handiak» markatzen ote digu zeri jarraitu?

Nire txoko txiki honetatik doakiela emakume kirolarietako mezuak aitortzen egin dituzten sakrifizio eta eginahal guztiengatik. Jaso ditzaten futbolzalea ez den *hooligan* baten zorionik beroenak eta maitasuna.

Aizue, horretaz ari garela, zein egunetan aterako da gabarra? ◀

## Barrika

## Barrika On Air txapelketak lau banda aukeratu ditu finalerako

Barrika On Air Banda eta DJ lehiaketa aurrera doa. Joan den maiatzaren 30era arte egon da aukera norgehiagoka horretan izena emateko; DJ kategoria bertan beharra gelditu da, ez direlako behar beste aurkeztu. Hala, daborduko, aurkeztutako guztien artean, epaimahaiak lau banda aukeratu ditu finalean jo deza-

ten: Leun, The Ribbons, Red Cocodri eta Huts. Antolatzaileek jakinarazi dutenez, San Juan jaietako saio erabakigarria igaroko dira lau talde horiek. Finala, berriz, ekainaren 18an izango da. Horretan, 700 euroko sari nagusiaz gainera, musika-produktuetan bonuak banatuko dituzte beste taldeen artean, eta formakuntza-saioak

egiteko eskaintzak ere bai. Gainera, finalera hurbiltzen diren guztiek talderik onena aukeratu beharko dute; publikoaren gogokoenak 150 euroko saria jasoko du. Azkenik, talde irabazle guztiek zuzenean jotzeko aukera izango dute berriro ere. ◀

info +: [liburutegia@barrika.net](mailto:liburutegia@barrika.net)  
946 775 163


### Europako sits mota

handiena agertu da Barrika inguruan: Paboi handia. Barrikoztar batek helarazitako irudian ikus daitekeenez, Europako tximeletarik handiena aurkitu du; *Saturnia pyri* du izen zientifikoa, 15 zentimetro inguruko zabalera du, eta Europa hegoalde osoan bizi da, nahiz eta leku guztietan ez den erraz aurkitzen. Tximeleta horrek astebete iraun dezake bizirik, heldua denean ezin baitu bere burua elikatu; izan ere, beldarra denean lortzen du har dezakeen energia guztia.



© EGOITZ SIERRA URRIA

## Plentzia



Isuskitza bidez aparte, urbanizazioak beste sarbide bat dauka.

## Isuskitza bidea itxi dute, segurtasunagatik

Joan den martxoan jazotako luitzi batek Isuskitza urbanizaziorako sarbideetako bat ixtea eragin zuen. Gertakari horren ondorioz, adituek ikerketak egin dituzte inguru horretan, eta emaitzen arabera, epe luzerako bide hori ixtea eskatu diote Udalari. Hala, urbanizazioko auzokideentzako «gogaikarria» izango dela jakinda ere, bide hori ixteko erabakia hartu du Udalak, gerta litezkeen istripuak saihesteko asmoz. Dena den, iragarri dute Udalak Isuskitzako auzotarrakaz

bilerak egingo dituela irtenbide bat biltzeko aldera; gaur egunera arte, 3 aldiz bildu da gutxienez Udala bertako bizilagunakaz.

### Segurtasun falta

Bidea ixtearen arrazoi nagusietako bat segurtasun falta izan da, errepidearen egoera kaxkarra dela-eta: mantentze-lanen faltaren ondorioz, hondoratzeak eta arrakalak ditu bideak. Adituek uste dute bidearen egitura kaltetuta dagoela. ◀

## Parte-hartzea areagotu gura dute udalerrian

**Herritarren iritzia** eta kezak jasotzeko bideak jarri ditu martxan Udalak, tartean: Plentzia Zabaltzen.

**H**erritarren parte-hartzea sustatzeko asmoz, martxan jarri du Udalak Plentzia Zabaltzen izeneko plataforma, Interneten. Webgune ireki bat da; gardentasuna bultzatzeaz gainera, herritarrek udalerriarren bizitzan parte hartzea sustatuko duena, Udalak iragarri duenez. Haren helburua da gizartearen eskareiri erantzutea. Bizkaiko Foru Aldundiko BiscayTIK Fundazioa arduratu da plataforma hori martxan jartzeaz; azaldu dutenez, tresna hori legealdiaren hasieratik dago martxan, eta toki-administrazioaren modernizazio-prozesuaren barruan sartu behar da. Herritarrek parte hartu duten azken ekintzei buruzko albisteak irakur daitezke Plentzia Zabaltzen-en, eta, parte-hartzearen atalean, berri, herritarrek aukera dute gaur egungo gaiei buruzko inkesten bidez iritzia emate-

ko. Gainera, Kalezaindu izeneko atal bat dago; haren bidez, auzokoei helaraz diezaioke Udalari zer arazo ikusi duten kaleetan, adibidez: elementu publikoren bat ez dabilela, edo besteren baten bat hobetu daitekeela. Kalezaindu mugikorretan ere erabilgarri dago, bai Androiderako bai Iphonerako aplikazioa erabiliz.

### Arretarako ordutegi berria

Teknologia berriez gain, Udalak herritarrengana hurbiltzeko bestelako bideak ere areagotu gura ditu. Hori dela-eta, ekainaren 1ean herritarren harretarako bulegoaren ordutegia zabaldu zuten udaletxean: 08:00etatik 14:30era. «Itxaropena daukagu neurri horrekin, eta aurrerantzean hartuko ditugun beste batzuekin ere, hobetu egingo dugula herritarrei eskaintzen diegun arreta», azaldu du David Crestelo Plentziako alkateak.

Gogoratu beharra dago, gainera, herritarren parte-hartzea areagotzeko asmoz, Udalak «Bulegotik kalera» ekimena jarri zuela martxan joan den otsailaren 2an. Modu horretan, bisitatutako guneak hobetu gura dituzte. ◀

info+: [zabaltzen.plentzia.org](http://zabaltzen.plentzia.org)

## Uribe Kosta

## Araba Euskarazera joateko autobusa, hilaren 14ra arte

A guraingo Lautada ikastola dabil antolatzen aurtengo Araba Euskaraz festa. Hala, aurten ekainaren 19an izango da euskaltzaleen ospakizuna, «Geroari Begira» goiburuagaz. Gornizko eta Plentziako udalek autobusa antolatu dute, Mankomunitateagaz el-

karlanean, eskualdeko euskaltzaleak bertaratzeko asmoz. Busean joan gura dutenek ekainaren 14ra arte izango dute izena emateko aukera. Gornizko zein Plentziako kultur etxeetan eman beharko dute izena. ◀

info+: [www.plentzia.eus](http://www.plentzia.eus) / [www.gorniz.eu](http://www.gorniz.eu)

## Gidabaimena euskaraz ateratzeko kanpaina, martxan

**E**randioko eta Getxoko udalek aurton ere sustatuko dute 17 eta 23 urte bitarteko gazteen artean gidabaimena lortzeko azterketa teori-koa euskaraz egitea.

Hala, 100 euroko diru-laguntza emango diete aurton ere teorikoa euskaraz egiten duten gazteei; 100 euroko txartelak ere zozkatuko dituzte gasolina erosteko. Horrez gainera, sentsibilizazio-jarduerak antolatu dituzte ikasleen artean, eta informazioa ere zabalduko dute. Aurten, gainera, Igor Urien F3ko pilotuak bideoak egin ditu azterketa teorikoa euskaraz egitera animatzeko. Erandioko hiru autoeskolak (Alzaga, Arias eta Gaztegi) eta Getxoko seik (Amezti, Drive, San Inazio, Arias, Uribe Kosta eta Manolo) bat egin dute ekimen horregaz, aurten berri-ritu duten hitzarmenaren bitartez. Uribe Kostako Zerbitzu Mankomunitateak ere aurreikusi du gutxi barru euskararen aldeko kanpaina hori mar-

txan jartzea. Aurreko urteotan bezala, aurton ere autoeskoletan eskuliburuak eta testak erakustez gain, euskaraz erabil daitezkeen simulagailua ere dute. Udalek lankidetzaz hitzarmena berri dute kanpaina parte hartzen duten autoeskolakaz. Berri-tasunen artean, azterketa prestatzeko behar diren teoria-liburuak eskainiko dizkiete; kanpainaren berri emango dute, eta laguntza eskainiko die autoeskoletan eta zerbitzuetan euskara erabili dezaten.

Bestalde, autoeskoletan hartutako konpromisoaren artean daude: hizkuntza-paisaia euskaraz ere egotea, eta Gidabaimena euskaraz kanpainaren berri ematea. Gainera, udal biek 1.200 sarrera dituen hiztegia (bertsio digitaletan eta paperezkoan) eskaini diete autoeskoletan, interesa duten eta ekimenean parte hartzen duten gazteek beren hizkuntza-zalantzak argitu ahal izan dituzten. ◀



Ummm...

AMAIA NEREKAN UMARAN  
Emak-Umea eta Pertson-Ona

### Boli berdea eskuan...

**B**oli gorria eskuan dudala (urteak daramatzat EHU ikus-entzunezkoak irakasten), azterketetan oinarritutako ebaluazio-sistema zalan-tzan jartzera gonbidatzen zaituztet. Gobernuak aldatzearekin batera, hezkuntza-sistema aldatzeko esperantza ere dugu askok. Boli gorria alde batera utzi eta berdearekin ikasleak motibatzeke norabidea hartzea.

Errealitate ezberdin bat posible dela aurkezten duten dokumentalek bidea zein izan daitezkeen erakusten dute, hezkuntza proposamen alternati-boak aurkeztuz: *La educación prohibida*, *Ser y tener*, *Enséñame pero bonito*, *Entre maestros*,... Ikastea gorritz baino, berdez margoztua izan dadin... ◀



Urbiatik abiatu eta Getxon amaitu zuten bidaia joan den urrian, artaldeagaz batera, Mikel Etxezarretak eta Eli Arrillagak.

# Akabuko martxea

**Urbiatik Getxora 250 ardik** egindako ibilbidean dago oinarrituta Aitor Gisasolaren eta Fredi Paiaren dokumentala; zapatuan, hilak 11, emango dute Algortan.

**U**rbiako (Gipuzkoa) mendietatik Uribe Kostara neguan euren artaldeak ekartzen zituzten artzainek. Haien zeregina akordura ekartzen du, berriro, *Akabuko martxea* ordubeteko dokumentalak. Astelehenean, ekainak 6, aurkeztu zuten Donostia 2016 Europako Kultur Hiriburutza proiektua-

ren barruan; Tabakalera egin zuten ekitaldia. *Dominica* zortzi minutuko ikus-entzunezkoa ere aurkeztu zuten; artzaintzan emakumeek eduki duten garrantzia ikusarazi eta aldarrikatu gura izan dute dokumental labur horretan. Bada, zapatu honetan, ekainak 11, Algortako Bihotz Alai plazan proiektatuko dituzte biak, 20:00etan.

Emanaldian, Aitor Gisasola getxoztarra (zuzendarietako bat) eta Eli Arrillaga zarauztarra (lan bietako protagonista) egongo dira. Doan da sarrera; lekuen kopurua mugatua da.

Aitor Gisasola ez ezik, Fredi Paia algortarra ere ibili da dokumentala zuzentzen eta gidoia idazten. Umetan zer egiten zuen gogoratu zuen joan den urrian Mikel Etxezarretak, ibilbidea egin zuen-eta artaldeagaz (Urbiatik Getxora); bidean hartutako irudiak ikus daitezke *Akabuko martxea* ikus-entzunezkoan; ardiakaz, Gisasola

eta Paia ere joan ziren. Transhumanziaren ohitura gogora ekartzeaz gainera, bizkaitarren eta gipuzkoarren arteko hartu-emanen aberastasuna uzten du agerian dokumentalak; Bizkai eta Gipuzkoaren arteko harreman horien memoria berpizteagaz batera, «argi geratu da erakunde eta herritar ugariaren partaidetzari esker atera dela aurrera» proiektua, Paia Donostiako aurkezpenean azaldu zuenez. Ostera, Etxezarreta artzainak, gogoko luke egindako filmak «gazteak lanbidera dedikatzen animatzeko balio izatea». ◀

## Herrigunek ekitaldiak egingo ditu aste-akabuan

**A**ste-akaburako hainbat jardura antolatu ditu Leioako Herrigune egitasmoak. Hala, zapatuan, ekainak 11, Ezagutzen Azoka, Zientzia Kalera, Iraunkortasunaren Azoka eta beste ekintza batzuk egingo dituzte, 12:00etatik 14:00etara, Boulevarden. Domekan, hilak 12, berriz, bizikleta-martxa egingo dute, 11:00etan Boulevardetik abiatuta. Bestalde, kazetariak aukera izango dute, aurretik, eguenean, hilak 9, Herriguneren zenbait ikasketa-prozesu komunitariotan parte hartzen duten herritarrakaz berba egiteko; saioa Gaztelubideko txokoan izango da, 11:00etan. ◀

### Ekitaldiak

#### Ekainak 11, zapatua

**12:00-14:00** Iikas-ingurunea, Boulevarden.  
- Ezagutzen Azoka.  
- Zientzia Kalera.  
- Iraunkortasunaren Azoka.

#### Ekainak 12, domeka

**11:00** *Bizibideak: eskolara bideak* bizikleta-martxa, Boulevardetik abiatuta.  
Ibilbidea: Avanzada, Sabino Arana, Udondo, Lamiako, Putzegilearen biribilgunea, Lamiako, Iturriondo eta Luis Bilbao Libano.  
Parte hartzeko, izena eman beharra dago.

info+: [herrigune.org](http://herrigune.org)

Ekainaren 10ean eta 18an olerki xuxurlatuen tailerra eskainiko du Kalabazan elkarteak

**K**alabazan Kultur Ekimenak elkarrekin antolatuta, ekainaren 10a (19:00-21:00) edo 18a (11:00-13:00) aukeratu ahal izango dute parte-hartzaileek, olerki xuxurlatuen tailerraz gozatzeko; doakoa izango da ikastaroa. Olerkiak interpretatzen eta xuxurlatzen ikasiko dute ikasleek, xuxurlatzaileen tresna sortuz. Ahozkotasuna eta komunikatzeko gaitasuna landuko dute, poesiaren bitartez. Hala, izena emateko epemugarik ez dago; baina, tailerra prestatzeko zenbaterik parte hartuko duten aurretik jakin gura lukete Kalabazan elkarteak. ◀

izen-ematea: 652 730 803 / 645 719 353

Ekainaren 13tik 19ra Euskal Astea ospatuko dute Astrabuduan, Trabuduk antolatuta

**T**rabudu Dantzari Taldeak antolatuta, hainbat jardueraz gozatzeko aukera egongo da, ekainaren 13tik 19ra. Hasteko, egun horietan guztietan, soinekoen erakusketa egongo da ikusgai, Astrabuduko Josu Murueta kultur etxean. Hilaren 17an, berriz, soinekoen desfilea egingo dute, 19:30ean. Hilaren 18an, ostera, dantza-emanaldia eskainiko dute Trabudu eta Barca de Loimil (Galizia) taldeek, 19:00etan, Mendiguren plazan. Azkenik, hilaren 19an, kalejiran ibiliko dira (Ignacio Aldekoa ikastetxetik) eta euskal dantzak (Mendiguren plaza) erakutsiko dituzte, 11:30etik aurrera. ◀

# hirukagenda

Uribe Kostako astekarria

2016ko ekainaren 9tik ekainaren 15era arte



hiruka.eus

Eskualdeko hainbat talde feministak eta norbanakok antolatatu dute jaialdia.



ERANDIO

## Eskualde osoko jaialdi feministak egingo dute

Zapatu honetarako, ekainak 11, Uribe Kostako Jaialdi Feministaren lehenengo edizioa antolatu dute eskualdeko hainbat taldek eta norbanakok. «Herri arteko harreman-sarea sendotzeaz gainera, borroka feministaren aldarriak indartu» gura dituzte, egun osorako prestatu dituzten jardueren bitartez. Aipatu dutenez, «dantzatu ezin den iraultza ez da gure iraultza

izango», eta horrenbestez, kontzertuak eta musika egongo dira gozatzeko. Horregaz batera, adierazpen desberdinen topagunea ere izango dira Alzagako kale-bazterrak egun osoan. Egitaraurearen barruan daukagutako irektiera-ekitaldia (11:00), tailerrak (11:30) eta herri-bazkaria (15:00), Irailaren 23a plazan, udaltxearen ondoan. Leku berean, *No solo duelen*

*los golpes* antzezlan eskainiko du Pamela Palencianok, 17:00etan. Eta 19:00etan, berriz, bertso-desaioa baliatuko dute kalejira egiteko. Azkenik, 21:00etan, Mis Ovarios 33 musika-taldeak eta Tarantistak Djak joko dute, Kalezulo gaztetxean. Ezin da aipatu barik utzi, 13:30ean, sormen kolektibotik jorratutako kale-ekintza egingo dutela. ▶

ERANDIO

## Ibilgailu klasikoak erakusketa eta osterak egingo dituzte

Elordui Racing elkarteak antolatuta, domeka honetan, ekainak 12, ibilgailu klasikoak topaketaren 18. edizioa egingo dute Erandioko Goierrri auzoan. Hala, 09:30ean izena eman beharko dute parte-hartzaileek, Leioa-Unbe errepideko Elordui jatexean. 12:00etatik 13:30era, berriz, osterak egingo dute Zamudioko nagusien etxeraino. ▶



© ELORDUI RACING

2016/06/09 - 17:30-19:30

### Bitxigintza tailerra

**Ontziola plaza | Plentzia**

Euskeraz Olgetan egitasmoaren barruan. Hilaren 10ean, 11n eta 12an ere eskainiko dute hurrenez hurren Urdulizko Antsoñeko plazan (17:30-19:30), Gorlizko Ibarreta plazan (12:00-14:00), eta Sopedako Jauregiar plazan (12:00-14:00).

2016/06/09 - 19:30

### Ongintza-jaialdia

**Kultur etxea | Urduliz**

Gaixotasun araroak dauzkaten Alimar del Pozoren eta Alazne Rodriguezen alde. Iñaki Basabe abeslariak, Berangoko Simon Otxandategi eta Sopedako Lagun Artea abesbatzek eta Gaupasa taldeak hartuko dute



GORLIZ

## Euskal dantzak erakutsiko dituzte gaztelekuan

Ekainaren 10etik 12ra euskal dantzak tailerra egingo dute gaztelekuan (Ibarreta plaza). Neska-mutilentzako bilgunea 18:00etatik 22:00etara egoten da zabalik, berriz, ordu bete lehenago ixten dute. Hurrengo aste-akabuan torilla-txapelketa egingo dute. ▶

info+ 688 713 430

2016/06/11 - 19:00

### Olgetan Solas

**Faeta auzoa | Erandio**

Faetako San Bernabe jaien barruan. Erandioko Udaleren Euskara Zerbitzuak antolatuta. Familiarteko kirol-jolasak. Euskaraz. Doan.

2016/06/11 - 20:00

### Akabuko martxea filma

**Bihotz Alai plaza (Algorta) | Getxo**

Aitor Gisasola eta Fredi Paia dokumentalaren egileek aurkeztuko dute. Eli Arrillaga eta Mikel Etxezarreta protagonisten laguntzagandoren, emakume artzainen gaineko *Dominica* dokumental laburra (8 minutu) emango dute. Euskaraz. Doan.

LEIOA

## Tailerretako ikasleen erakusketa ipini dute

Arte-, artisautza- eta sorkuntza-tailerretako ikasturteko ikasleen lan-bilduma hartuko du ekainaren 9tik uztailaren 24ra, Kultur Leioako erakusket-aretoak. Domeka eta jaiegunetan itxita egongo da esposizioa. ◀

GETXO

## Luna de Brasil filma ikusgai, Algortan

Enclave Getxo emakumeen elkarteak antolatuta, astelehenean, ekainak 13, *Luna de Brasil* pelikula egongo da ikusgai 18:30ean, Villamonteko kultur etxean; sarrera, doan. Osteen, berbal-dia egingo dute, gaztelaniaz. ◀

GETXO

## Ipuinak euskaraz, Ines Bengoagaz

Ekainaren 16an, eguena, *Karabi karaba* saioa eskainiko du, euskaraz, Ines Bengoagaz ipuin-kontalariak; sarrera, doan. 5 eta 10 urte arteko umeentzako ikuskitzuna Gobelako haur-liburutegian izango da, 18:00etatik aurrera. ◀

2016/06/10 - 2016/06/12

### Erandio Pintxotan Tabernaz taberna | Erandio

l. Pintxo Lehiaketa. Bariku eta zapatuan, 12:00etatik 15:30era eta 19:00etatik 22:00etara; domekan, goizez bakarrik. Pintxoen salneurria: 1,30 euro. Bozkatzen duten guztiek 300 euroren zozketan hartuko dute parte.

2016/06/11 - 2016/06/12

**Maiatzak 40 jaialdia**
**Algortako Portu Zaharra | Getxo**
Besteak beste, ardo-dastaketa, bideo-emanaldiak, musika, poesia, sardina-jana eskaini, eta sariak banatuko dituzte. Informazio gehiago: www.40mayo.com

2016/06/11 - 2016/06/12

### I. Xtreme Games

**Altzaga | Erandio**
Irristaketa-eskolak, skate entrenamenduak eta lehiaketak egongo dira. Informazio gehiago: www.facebook.com/erandioskate

2016/06/11 - 09:00

### Sukalki txapelketa

**Martiatu auzoa | Erandio**
Martiatuko San Antonio jaien barruan. Parte-hartzaileek 09:00etan eman beharko dute izena. Sariak 20:00etan banatuko dituzte.

2016/06/11 - 10:30

### Plentziako Itsasadarraren XXVI. Igoera eta Jaitziera

**Itsasadarra | Plentzia**
Euskadi Ibaletako Kopako 4. proba da, piragua-zaleentzat.

2016/06/11 - 12:00-14:00

### Iraunkortasunaren Azoka

**Boulevard | Leioa**
Herrigune egitasmoak antolatuta. Besteak beste, tailerrak, bertoko produktuen erakusketa eta mahai-ingurua egingo dituzte. Informazio gehiago: herrigune.org

2016/06/11 - 16:00

### Emakumezkoen txirrintularitza-lasterketa

**Udaletxeko plaza | Sopela**

Bizkaiko eta Euskadiko txapelketak.

2016/06/11 - 17:30

### Euskadiko Lurgaineko Sokatira Txapelketa

**Martiatu auzoa | Erandio**

Martiatuko San Antonio jaien barruan.

parte. Sarrera: 5 euro.

2016/06/11 - 20:30

**Barne-barnetik Fest jaialdia**

**Txorimalo gaztetea | Getxo**

Garrasika, Erasoka eta The Tony Towers talde algotarrek joko dute. Sarrera: 4 euro.

2016/06/11 - 24:00

### Dantzaldia Garilak 26 musika-taldeagaz

**Martiatu auzoa | Erandio**

Martiatuko San Antonio jaien barruan.

2016/06/12 - 09:00

### Kosta Trail lasterketa

**Udaletxeko plaza | Sopela**
Mendi-lasterketa (30 kilometro), Mendi-maratoi erdia (21 kilometro), Mendi-ibilaldia (20 kilometro), eta ibilaldi familiarra (30 kilometro) egongo dira. Informazioa: www.kostatrail.com

2016/06/12 - 11:00

### Bizikleta-martxa

**Boulevard | Leioa**

Herrigune egitasmoak antolatuta. *Bizibideak: eskolara bideak* goiburupean. Informazio gehiago: herrigune.org

2016/06/12 - 11:00

### Plentzia-Billano Zeharkaldia

**Hondartza | Plentzia**

Euskadi Itsas Kayakeko Kopako 3. proba.

2016/06/12 - 13:00

### Igeriketa-zeharkaldi solidarioa

**Kirol Portua | Getxo**

Total Immersion Swimming elkarteak antolatuta. *Getxok AE* *Aren alde Igeri egiten* du goiburupean. Bi kategoria egongo dira: 14 urtetik beharkoak (350 metroko ibilbidea) eta nagusiak (kilometro bateko zeharkaldia). Informazio gehiago: www.saikapenak.com

2016/06/13 - 17:00-19:00

### Dantza-plaza

**Urizarreko eskola | Lemoiz**

Euskeraz Olgetan egitasmoaren barruan. Doan.

2016/06/14 - 13:00-15:00

### Lanuztea, Urdulizko ospitalean

**Ospitalea | Urduliz**

Satse, ELA, LAB, CCOO eta ESK sindikatuek deituta. Osasun-zerbitzuen pribatizazioaren kontra egingo dute protesta.

2016/06/15 - 2016/06/16 - 19:00

### Musika-eskolako ikasleen entzunaldia

**Kurtzio kultur etxea | Sopela**

Sarrera, doan.

|   |  |                        |                     |                          |                            |
|---|--|------------------------|---------------------|--------------------------|----------------------------|
|  | <b>ARGAZKIETAN OINARRITUTAKO TESTU LABURREN V. LEHIAKETA</b> | <b>Argazkietan.com</b> | <b>Adi!</b>         | <b>Ekainaren 12 arte</b> | <b>bidali zure berbak!</b> |
|  |  |                        | <b>azken aukera</b> |                          |                            |

|   |                        |                |   |
|---|------------------------|----------------|---|
|  | <b>Argazkietan.com</b> | <b>egizuz!</b> |  |
|---|------------------------|----------------|---|

# Sutondotik Plazara lehiaketa abiatu dute Bizilurrek eta Etxalde

**Elikadura-burujabetzaren inguruko gogoeta** sustatu gura dute adierazpen artistikoen bitartez; uztailaren 15era arte dago lanak aurkezteko aukera.

**U**ztailaren 15era arte, euren lanak aurkezteko aukera edukiko dute Sutondotik Plazara lehiaketan parte hartu gura duten lagun denek. Bizilur lankidetzarako eta herrien garapenerako erakundeak eta Etxalde - Nekazaritza Iraunkorra-k antolatu dute sariaketa, *Elikadura-burujabetza da bidea* goiburupean. Kategoriak lau dira: bideo laburrak, narratibak, argazkiak eta ilustrazioak. Aurkezteko lan-kopuruetan, berriz, ez dago mugarik parte-hartzaile bakoitzerako, ez kategoria bakoitzerako.

Guztira, 3.800 euro banatuko dituzte sarietan; gainera, urrian Errumanian egingo duten elikadura-burujabetzarako Nyeleny Europa bigarren foroan parte hartzeko aukera edukiko

Guztira, 3.800 euro banatuko dituzte sarietan, eta Errumanian egingo duten Nyeleny Europa foroan parte hartzeko aukera izango dute irabazleek.

dute irabazleek. Sariak hauek izango dira: kategoria bakoitzean 100 euroko saria, eta beste horrenbeste Begirada Feminista eta *Denok baseritarren eskubideen alde* sarietan.

Publikoaren sarian, berriz, 400 euro emango dizkiote lehiaketaren webgunean boto gehien lortu duen lanaren egileari. Lehiaketako sari denak, publikoak emandakoak izan ezik,

epaimahai batek aukeratu dute. Epaimahaiari osatuko dute, berriz, komunikazio- eta kultura-alorreko zenbait profesionalak, ikuspegi feminista daukaten komunikazioko adituek, lehiaketaren antolatzaile eta Euskal Herriko nekazarien mugimenduko ordezkariak. Irailaren 2an jakinaraziko dituzte saritutako lanak, webgunean. Sutondotik Plazara lehiaketaren hel-

## Oinarrietako batzuk

### Nori dago zuzenduta?

Lehiaketa irekia da parte hartu gura duten emakume, gizon eta kolektibo guztientzat.

### Lanak aurkezteko epea

Uztailaren 15era arte, [www.bideberriak.eus/lehiaketa](http://www.bideberriak.eus/lehiaketa) webgunean.

### Sariak

Kategoria bakoitzean, 100 euroko saria; beste horrenbeste, Begirada Feminista eta Denok baseritarren eskubideen aldeko sarietan. Publikoaren sarian, berriz, 400 euro emango dizkiote lehiaketaren webgunean boto gehien lortu duen lanari.

Info+: [www.bideberriak.eus/lehiaketa](http://www.bideberriak.eus/lehiaketa)

## Getxo Blues jaialdian joko duten musikarien izenak eman dituzte ezagutzera

**U**ztailaren 14tik 16ra izango da Getxoko Nazioarteko Blues Jaialdia, eta osatu berri dute aurtengo egitaraua. Lehenengo egunean, Travellin' Brothers leioaztarrek lagunduta igoko da Algortako Bihotz Alai plazako oholtzara Sugaray Rayford ezaguna. Saioa 20:00etan izango da, eta sarre-rak 8 euroan egongo dira. Bigarren egunean, berriz, Martha High abeslariagaz batera joko du The JB's Original James Brown Band taldeak, leku berean, 21:00etatik aurrera. Txartelak 15 euroan erosi ahal izango dira. Jaialdiari akabua emateko, Popa Chubby gitarra-jole estatubatuarraren taldea igoko da Bihotz Alaiko agerlekura, 21:00etan. Sarrerak 10 euroan lortu ahal izango dira. Bestalde, ohi den legez, doako emanaldi bi egongo dira, zapatuan (Iker Piris eta Blas Picon) eta domekan (Bocinero), Algortako Piper's taberna irlandarrean. Kontzertu horiek 23:00etan hasiko dira. ◀

Info+: [www.getxo.eus](http://www.getxo.eus)

## Eskolarteko Euskal Herriko txapela jantzi du Txaber Altube bertsolari abadiñoarrak

**T**xirritaren heriotzaren 80 urteurrenaren bihamunean, ekainaren 4an, egin zuten Euskal Herriko Eskolartekoaren 28. txapelketaren finala. Bertsolariari loturiko data seinalatua izanda, bere jaioterria, Ereñotzu, aukeratu zuten saio erabakigarri hori egiteko. Hasierako agurraren ostean, binaka, ofizioko gaian jardun zuten bertsolariek, zortziko handian lehenengo, eta zortziko txikian ostean. Puntuazioz lehendabiziko sei sailkatuek aurrera egin, eta bakarka kantatu zuten amaieran; zoritxarrez, Unai Mendiburu Valor algortarra, ordea, ez zen galbahetik igaro. Azkenean, Txaber Altube Sarrionandia abadiñoarrak jantzi zuen txapela, eta Beñat Mujika Izagirre donostiarra izan zen txapeldunordea. Alai Martinek jantzi zion txapela irabazleari. Iaz Mintzolak abiatutako Ahots Baten sormen-egonaldia izan zuten sari parte-hartzaile denek; Gabonetan egingo dute topaketa bertsolari gazteek. ◀



Mikel Martin Villacortak aurkeztutako argazkia. © GORLIZKO UDALA

## Mikel Martin Villacortak irabazi du Gorlizko argazki-lehiaketa

**D**aborduko, Gorlizko argazki-lehiaketaren irabazleen izenak ezagutarazi ditu epaimahaiak. Udalaren webgunearen bitartez zabaldu dutenez, Mikel Martin Villacortak irabazi du txapelketako lehenengo saria; bigarren saria, berriz, Asier Castro de la Fuententzat izan da. Azkenik,

argazki-lehiaketaren hirugarren saria Joseba Solaguren Etxenagusiak irabazi du. Horien argazkiak eta txapelketa-aurkeztutako irudi guztiak Udalaren webgunean ([www.gorliz.eu](http://www.gorliz.eu)) ipini dituzte ikusgai; guztira, 194 lan daude. Gorlizko argazki-lehiaketak 22 urte bete ditu aurretik. ◀

# «Elkarri laguntzeko bideak aztertu beharko genituzke»



Soziologia eta erakundeetako komunikazioan aditua da Naroa Jauregizuria.

**Naroa Jauregizuria**  
**Lopategi** leioztarrak Euskal Herria markaren gaineko ikastaroa antolatu du, UEU Udako Euskal Unibertsitateagaz batera.

KEPA UGARTE MARTIARENA ▶

**E**kainaren 28an, *Euskal Herria markaz eta markagintzaz. Nazio-garapena, berrikuntza eta parte-hartzea oinarri* izeneko sei orduko jardunaldia egingo dute Iruñean, UEUK antolatutako udako ikastaroen barruan. Ekainaren 19ra arte izena eman daiteke.

## Zer da nazio-marka?

Nazio-marka nazioaren isla da. Nazioak berak sortzen du irudia, bere balio eta jardunaren bitartez; ildo berean, aldeko zein kontrako testuinguruak eta konpetentziak ezaugarritzen dute nazio-marka. Informazio-bonbardaketa nagusi den momentu honetan, marka bidezidor bat da nazioaren eta barneko zein kanpoko interes-taldeen artean; ideiak lotzen ditu, eta pertzepzio esanguratsu eta egituratu bat sortzen du.

## Zertarako balio du nazio-markak?

Nazio-markak nazioaren balioa sintetizatzen du, eta interes-taldeei eskain-

tzen die: ondoriozko konexio bat erakitzen du (edo ez), eta trukean, balio bat jasotzen du; ekonomikoa, politikoa, soziala edo kulturala izan daiteke balio hori. Nazioartean, ekonomia-mailan (*made in* eta horrelakoak) ez ezik, diplomazia publikoan eta nazio-garapenean ere erabiltzen dira nazio-markak.

## Zein izango litzateke horren guztiorren adibidea?

Ni ez naiz inoiz Brasilen egon; bai-

“*Brasilen egon ez naizen arren, badaukat herrialde horren irudi bat nire buruan*”

na, herrialde horri buruz dauzkadan erreferentziek, jasotako telebista-albisteek, ikasitakoak, lagunek kontatutakoak, entzundako musikak edo ikusitako filmek Brasili buruzko ideia bat sortu dute nire buruan. Horren arabera, herrialdearekiko jarrera bat eta ondoriozko jokaera garatuko ditut.

## Horren arabera, zer da markagintza?

Markagintza da daukadan irudi horretan eragiteko erabiltzen diren hainbat marketin-teknika. Hotzean esanda, nazio-markagintza lehiatzeko tresna

## Ikastaroa

### Noiz eta non

Ekainak 28, martitzena

09:00-13:00/15:00-17:30 Iruñeko Kondestablearen jauregia.

### Matrikularen prezioak

- Orokorra: 42 euro.

- Ikasle, langabe eta erretiratuak: 37,80€.

- UEUko bazkideak: 31,50 euro.

### Izena emateko epea

Ekainaren 19ra arte, UEUren webgunean.

### Parte-hartzaileak

Gaindegia, Agirre Center, Euskal Herriko Laborantza Ganbara, PuntuEUS Fundazioa, Gerediaga Elkartea, Labrit Multimedia, Burutu Komunikazio Agentzia eta abar.

### Laguntzaileak

Gipuzkoako Foru Aldundia, Euskararen Erakunde Publikoa, Bizkaiko Foru Aldundia eta Iruñeko Udala.

info+: [www.ueu.eus](http://www.ueu.eus)

bat da; interes-taldeen erabakiak bideratzea da bere helburua. Marketin-eta komunikazio-estrategiak erabiliz, nazio-markaren ospean eta posizionamenduan eragiten saiatzen da, nazio-jarduera eta -identitatearen ezaugarri batzuk nabarmenduz eta transmitituz.

## Zertan lagun dezake markak Euskal Herriaren nazio-garapenean?

Nazio-markagintza eraginkor baten bidez, Euskal Herriak bere irudia kudeatzeko aukera izango luke, behar propioen araberrako balioa eskainiz eta jasoz. Barrura begira, sinergiak sortu, atxikimendua eta parte-hartzea indartu, eta egiten ari den lana eraginkor egiteko balio lezake. Kanpora begira, mundu-mailan ezagutza handitu eta interes-taldeekin balio-trukeak indartzeko zubiak eraikitzen lagun lezake.

Adibidez, egon daiteke sukaldari bat ona dena; baina euskal sukaldaritzak bestelako erreferentzialtasun bat ematen dio horri guziorri.

## Gogoeta-saioaren ostean, zein pauso eman beharko lirateke?

Batetik, markoa zehazteko beharra legoke. Bestetik, Euskal Herriaren erreferentziapen marka asko dago; ez bakarrik kontsumo-produktuekin lotutakoak. Dagoena ezagutu beharko genuke, eta apurtxo bat ordenatu; eta, bide batez, elkarri zertan lagundu ahal diogun aztertu. ◀



Zabalera

JOSEBA SANTXO URIARTE  
Filologoa, idazlea, ikertzailea

## Marabedian idia, baina non marabedia?

**M**arabidin idi, baie nun marabidi?» dio gure eskualdeko esae-  
ra zahar batek. Baina esangura ilun samarra begitanduko zaio egungo gazteari. Izan ere, «marabedia» antzina-ko txanpon baten izena da. Etimologiazaleentzat esango dut «marabedi» berba «almorábide» hitzetik omen datorrela, eta «dinar almorabide» txanpona, kasurako, Behe Erdi Aroan Iberiar Penintsulako musulmanek zein kristauek erabiltzen bide zutela.

Esanahiari dagokionez, esae-  
ra zahar horrek diosku marabedi baten truke (gaur egun marabedi batek 0,0001 € inguruko balioa izango luke) idi bat eros zitekeela, baina horretarako marabedia eduki egin behar zela! Egia handia; eta unibertsal, gainera, jakina baita diruak malkarrak zelaitzen dituela.

Baina marabediaren garaitik euroarenera etorrita, argi dago euro batekin ez dagoela idi bat erosterik. Ezta merkealdian ere! Baina bai idia baino askoz handiagoko zerbait. Gaztelu bat, berbarako. Baina ez euro bakar baten truke, baizik eta euro banaren truke. Bana, banatu, norbanatu... euskaldun guztiok euro bana eman ez gero, Baigorriko Etxauzia gaztelua erosi ahal izango dugu. Nafararren Elkartek kanpaina abiarazi du erronka hori lortze alde: «Euskaldun bat, euro bat», dio kanpainaren leloak. Webgunea ere atondu dute, dotore askoa: [www.euskaldunbateurobat.com](http://www.euskaldunbateurobat.com). Halandaze, Erdi Arotik Aro Garaikidera, marabeditik eurora, eta iditik gaztelura.

Ikusiko duzuen, proiektu zoragarria dago Etxauziko hormatzen atzean. Nik neure euroa eman dut jada. Euro bat eman duen 2.044. euskalduna izan omen naiz. Honezkero euskaldun gehiagok emango zuten beren euroa (webgunean kontagailua dago). Konda gaitzen. ◀

## «Pinilla oso pozik egongo litzateke gure pelikulagaz»

**Ana Murugarren zinemagile** nafarrak Ramiro Pinilla idazle getxoztarraren *La higuera* eleberria zinemara egokituko du, *La higuera de los bastardos* izenburupean. Grabazioak uztailen hasiko dituzte Getxon, eta maila handiko taldeak parte hartuko du filmean.



IKER RINCON MORENO

**Uda honetan *La higuera de los bastardos* filma grabatuko duzue. Zelan doaz prestatze-lanak?**

Oso ondo, egia esanda. Apurka-apurka, taldeko kide guztiak batzen hasi gara, eta lokalizazio guztiak lotzen gabilta. Ohi den legez, grabazio guztiak hasi baino lehenago izaten den urduritasuna egon bada; den-dena lotzeko denborarik emango ez digulako sentsazioagaz gabilta. Baina, beno, dena ondo!

**Ramiro Pinilla idazle getxoztarraren *La higuera* liburuan dago oinarrituta pelikula. Zelakoa izan da egokitzea?**

Edozein eleberri egokitzea bezala, zailtasunak daude. Idazleak protagonistaren pentsamenduak azaltzen ditu behin eta berriro, eta guk hori guztiori irudietara moldatzeko beharra dugu. Pertsonaia horren buruan sartu, eta modu batean edo bestean, pertsonaiaren pentsamenduak aurkeztu behar ditugu irudien bitartez. Horrez gainera, konkretuki liburu honetan, istorioa pertsonaiaren buruan jazotzen da, eta bere pentsamenduak azaltzen dira behin eta berriro... Baina arazo hori gaudituta, beste guztia oso erraza da. Erritmoa ere moldatu beharra dago: erritmo zinematografikoa txertatzea beharrezkoa da, kontaktzen diren kontu asko erakutsiz, etab. Baina egiteko polita da, egia esanda.

**Zergatik erabaki zenuten Pinillaren lan hori zinemara egokitzea?**

Orain dela hainbat urte ezagutu genuen Ramiro, eta

bere lanaren jarraitzaileak gara. Bere eleberri batzuen inguruan egin genuen berba beragaz. Esan zigunez, ilusio handiz hartuko zuen bere eleberririk handiena pelikula bihurtzea: *Valles verdes, colinas rojas*. Halere, *La higuera* lanaren pelikula ikustea ere gogoko lukeela aitortu zigun. Baina hor gelditu zen kontua... Eleberri horrek asko hunkitu ninduen, ho-

**“ Pinillaren oinarritzko ideiak errespetatu gura izan ditugu, eleberria egokitzerako orduan. Tuntu handiz egin dugu lan ”**

ren amaierak, eta bertan kontaktzen den istorioak... Hala, Joaquín Trincado produktoreak esan zidanean liburu horren egokitzapena egiteko, lanean hasi nintzen, eta segituan ikusi genuen pelikula oso on bat atera litekeela horretatik. Hala jaio zen proiektua, eta horrela garatu dugu.

**Pinilla 2014ko urrian zendu zen. Berari ideia horren berri emateko aukera izan zenuten?**

Proiektua garatzen hasi ginenean zendu zen. Dena den, haren oinordekoakaz eta Tusquets editorialagaz harremanetan ipini ginen. Argitaletxeak asko

jagon du Pinillaren obra; izan ere, Ramiro borrokan ibili zen editorial askogaz, askotan oso txarto jokatuta izan zutelako beragaz. Hala ere, Tusquetsekoakaz lanean hasi zenean, editorialen munduagaz fidatzen hasi zen berriro ere.

**Idazlearen *Las ciegas hormigas* lana ere egokitu zuten telebista saio baterako. Hala ere, Pinillak ez zuen oso gustuko izan... Zure ustez, zer esango zuten zuen *La higuera de los bastardos* pelikulaz?**

Aipatu duzun lehenengo kasu horretan, argitu beharra dago Pinillak ez zuela inoiz emaitza ikusi. Antza, ez zegoen ados euren egiteko moduagaz, inoiz ez zutelako bere iritzirik kontuan hartu lan hori egiteko. Gure kasuan, oster, nik uste dut oso pozik hartuko lukeela. Bere oinarritzko ideiak eta motibazioak errespetatu gura izan ditugu. Tuntu handiz lan egin dugu filma egokitzerako orduan.

**Istoria Rogelio izeneko falangista baten eta Gabino umearen arteko loturan oinarritzen da. Zein izango da horren garapena?**

Argi gelditu beharrekoa da ez dela Gerra Zibilaren inguruko pelikula bat. Garai horretan hasten da kontaktizuna, baina garapena nahiko esperpentikoa da, surrealista. Gau batean, Rogelio baserri batera sartzen da eta bertako aita eta seme nagusia bahitzen ditu. Baserritik ateratzean, ume txiki baten begiradagaz gurutzatzen da falangista, eta ordutik Rogelio obsesionatu egiten da. Bere ustez, nagusitzen



denean beregan joko du ume horrek, bera hiltzeko asmoz. Obsesio hori gero eta handiagoa bihurtzen hasten da bere barnean. Halako batean, umeak pikondo bat landatzen du bere aita eta anaia nagusiarren hilobian. Ondoren, falangista zuhaitz hori jago-tera joaten hasten da, eta hala arituko da 30 urtez. Pikua handitzen hasten da, eta Rogelio horren ondoan bizitzera gelditzen da, hura zaintzeko, kontzientzia garbitu guran edo. Apurka-apurka inguru hori santutegizat hartzen dute ingurukoek, eta erromesak hurbiltzen hasten dira, mirari bila. Rogelioren kide falangistek, oster, ez dute batere ondo ikusten hori, hilketen lekua seinalatzen duelako, eta hura bertatik kanporatzen ahaleginduko dira. Hortxe hasten da istorioaren garapena. Amaiera zein den ez dut esango, baina iragar dezaket biribila izango dela.

**Karra Elejaldek egingo du Rogeliorena. Behin baino gehiagotan esan duzu berak egin beharrekoa zela, zergatik?**

Karrak pertsonaia horren gidoia irakurri zuenean esan zuen: «hau niretzat egingo dago!». Egia da oso ondo datorkiola paper hori berari; Rogelioren erotasuna oso ondo antzez dezake Karrak. Nik uste dut oso ondo egingo duela. Halaber, Karrak gainera, dugun taldea izugarria da, castinga ezin hobea izan da.

**Gabinorena egiteko, berriz, hainbat casting egin dituzue. Zelan doa aukeraketa?**

Bagabiltza... laster beste proba bat egingo dugu eta

ea zer lortzen dugun. Hala ere, badugu hortik zer edo zer nahiko interesgarria izan daitekeena.

**Zeintzuk ezaugarri beharko ditu Gabinoren pertsonaia hezuramituko duenak?**

Den-dena begirada bakar batez esaten du. Hortaz, umearen begiradak katigatu behar zaitu. Horrez gai-

**“ Euskal zinemak gaur egun egoera ezin hobea duela uste dut, bai euskaraz egiten denak, bai gaztelaniaz egiten denak ”**

nera, erraztasuna izan behar du kameran aurrean lan egiteko... Hala ere, oinarrizkoena begirada litzateke, begirada sakona eta ezohikoa izatea.

**Ramiro Pinillaren seme txiki Davidek ere parte hartuko du proiektuan, ezta?**

Bai, gure aurreko pelikulan *Tres mentiras* ere parte hartu zuen. Aktore profesionala da eta Maruri dokto-rearena egingo du oraingo honetan. Oso pozik dago.

**Eleberriarren zati handi bat Getxon oinarritzen da. Zeintzuk izango dira grabazio-lekuak?**

Irudi gehienak Getxon bertan grabatzeko ahalegina egin dugu, Pinillaren eleberririk han daudelako oinarrituta; eta lortzen ari gara. Daborduko baserri bi, zelaia eta jauregia lortu ditugu, besteak beste. Halaber, San Nikolas plazan ere grabatuko dugu, lehen-go udaletxearen aurrean.

**Noiz aurkeztuko duzue filma?**

Uztailaren hasieran grabatzen hasiko gara, eta bost aste ibiliko gara lanean. Hala, abuztuan amaitu, eta postprodukzioan ibiliko gara azaroaren bueltara arte. Beraz, nire ustez, 2017ko udaberrian edo udagoienean estreinatuko dugu.

**Zuk zuzendutako *Tres mentiras* pelikulak Filipinetako World Premieres Film jaialdiko sari nagusia jaso zuen iaz. Pozik?**

Bai, bi sari eman zizkiguten: emakumezkoen artean aktorerik onenari, eta jaialdiko sari nagusia. Gero, inguruko beste hainbat jaialditan ere saritu dute filma, Tuteran eta Zaragozan, berbarako. Egia esanda, ikaragarria izan zen! Mundu osoko estreinaldiak aukeratu zituzten jaialdirako: zortzi, hain zuzen ere; askotarikoak ziren. Bada, hara joan ginen gure filma aurkeztera, eta saria eman zigutenean, izugarria izan zen. Bestalde, Filipinak ezagutzeko aukera edukitzea ere oso ondo egon zen. Zinemaren munduak behintzat bidaiatzeko aukerak eskaintzen dizkigu; ez gara aberasten, baina bidaiatzen dugu, kar ,kar.

**Pelikulak sortu eta zuzentzeaz gainera, zinematografiaren inguruko tailerrak ere eman dituzu Joaquín Trincado ekoizleagaz batera, ezta?**

Hala da, iaz master bat eman genuen Martzillan (Nafarroa). Bertan hainbat produktu egin genituen, esaterako bertako kondairaren pelikula bat, eta Erdi Aroari buruzko komedia bat. Oso ondo egon zen. Aurten ez dakit kurtso hori egingo duten ala ez; guk ezin izango dugu eman, baina espero dut etorkizunean proiektu horrek aurrera egitea. Baina ez hori bakarrik, Martzillako gazteluari erabilera handiago eman behar zaio; berriztatu berri dute, eta eremu ugari eta zabalak dauzka horrelako kontuak egin edo antolatu ahal izateko.

**Eta euskal zinemaren egoerari zer deritzozu?**

Bikain dagoela... Nire ustez, euskal zinema egoera ezin hobean dago gaur egun, bai euskaraz bai gaztelaniaz. Euskarazko lanen kasuan, *Loreak* filmak lortu duen guztiagaz, nik uste gora egin duela. Izan ere, hizkuntza gutxituen artean dagoenez, pelikula horrek lortutakoak laguntza eta bultzada emango dio euskarazko zinemari, eta oso ondo datorkio! Gure kasuan, oster, gaztelaniazko zinemaren barruan sartzen gara, beste zinemagile asko bezala. Gauza asko egiten ari dira, eta kalitate handikoak, gainera. Esperantza handia daukat jendearengan. Egoera ekonomikoa kontuan hartuta, halako gauza hain onak egin ahal izatea izugarria da! Ekintzaileak gara, eta proiektuak egikaritzera ausartzen gara, aurrekontu handiago ala txikiago batez, baina azkenean, beti aurrera eroaten ditugu proiektuak. Mirari txikiak dira, baina hor daude. Hasi, grabatu eta amaitzen dira, emaitza oso onakaz. Gainera, azkenaldian nazioartean oihartzuna izan duten proiektuak lortu izan dira. Orain dela hainbat urte boom bat egon zen euskal zineman, baina ordutik ez zen holakorik errepikatu, gaur egunera arte. ◀



## Muturreko jokoak, Erandion

Billboko Botxo Killers roller derby taldea izango da zapatu eguerdian, Jado ikastetxean.

**Inertzia-kirolariek elkartasun-erakustaldia egingo** dute aste-akabuan Erandion. Alzagako Jado ikastetxean, Ategorrin eta metro-geltokian egingo dituzte ekimenak.

**Z**apatuan eta domekan, Xtreme Games Erandio (Erandioko Muturreko Jokoak) ekimenaren lehenengo edizioa egingo dute Altzagan. Bertan, patinaje, skate, roller, slalom eta oro har inertzia-kirolen diziplina gehienek erakustaldiak izango dira, goizeko 10:00etatik aurrera. Ekimenak elkartasun-osagai handia izango du. Bertan bilduko den diru dena Mikeltxo Txapeldun egitas-

mora bideratu, eta Mikel Martin gaixotasun arraroa pairatzen duen Barakaldoko mutikoaren sendiari emango diote. Martinen gaixotasuna hain da arraroa, oraindino ez duela izenik. Jaki gehienei intolerantzia die umeak, eta ezin da ahotik elikatu; uragaz nahasitako Neocate izeneko botika inorganikoa ematen diote, zilborraren ondoan ipinitako konduktu baten bidez. Amnoazido horiek dira bere janari baka-

rra. Martinen familiak behin eta berriro adierazi du Mikeltxo Txapeldun proiektuaren helburu nagusia dela «gu ezagutarazi, eta gaitza mahaiaren gainean jartzea, eta elkarteak izan barrik, balentriak egin daitezkeela frogatzea». Hala, aldarrikatu dute «gaixotasunaren ikerketa ospitale publikoetan eta diru publikoagaz egin beharra» dagoela, «negozio-bide bilakatu barrik». Horrezaz gainera, umearen gastu medikoak ordaindu gura dituzte, pinak, eskumuturrekoak eta panpinak saldaz eta zozketak eginez. Hala, domekan zozketa berezia egingo dute, eta hainbat komikigileren ilustrazioak

euro bian eskuratzeko aukera izango da. Besteak beste, Al Barrionuevo, Pepe Larraz, Max Fiumara eta Salvador Larrocak lan bana eman dute, Martini sostengua adierazteko. Daborduko, zozketa-zenbakiak eros daitezke Alzaga eta Astrabuduko hamaika lekutan, tartean: Txorierrri eta Beti Lagun tabernak, Scarpa zapata-denda, Carmenen denda, Castellanos tailerra, Mapamundi, Urban Joy, Mana litxarrerria-denda edo Halcon bidaia-agentzia. Erandio Skate eta Jaialdi elkarte antolatzaileek izena ematera dei egin diete gurpil gaineko kirolzaleei. ◀

info+: [Hiruka.eus/erandio](http://Hiruka.eus/erandio)

## Castroviejo errepidera bueltatuko da Suitzan

**J**onathan Castroviejo txirrindulari itzubaltzetarra errepidera bueltatuko da datorren ekainaren 11n, Suitzako Itzulian lehiatzeko, Movistarrek zabaldu duenez. Gainera, Castroviejo sartu egin da Eusebio Unzueta Frantziako Tourrerako aurretik aukeratu dituen 12 txirrindularien artean. Oraindino ikusteko dago azkenean Frantziari bira emango dioten Movistarreko bederatzi kideen artean egongo den.

Halere, Castroviejoren helburua ez dago Suitzan, Eliseon eta Rio de Janeiron baizik. Txirrindulariak aitor-tu duenez, Suitzan gura du «erritmoa hartu, uztailean prest egoteko, Fran-



Jonathan Castroviejo. © MOVISTAR

tziako Tourrean Nairoren [Quintana] alde dena emateko, eta gero, Olinpiar Jokoetara joateko». Urribekostarra hila bete darama entrenatzen Andorran; ebakuntza egin zioten ezkerreko kubituan, duela lau hilabete. ◀

## Martiartun lehiatuko da Goiherri, 640 kiloan

**D**atorren zapatuan, ekainak 11, Goiherri sokatira-elkarteak bere etxean, Goierriko jaietan eta Martiartu dorretxearen pean, jokatu du lur gaineko Euskadiko sokatira txapelketa, 640 kiloko modalitatean. 17:30etik aurrera, erandioztarrek talde bi aurkeztuko dituzte, Akelarregaz batera osatutakoaz gainera. Lehiakideak Laukizko Gaztedi klubaren hiru talde eta Mutriku izango dira.

Goierriarrak ez datoz esku hutsik 640ko bigarren jardunaldira. Pasa den zapatuan, Laukizen, Gaztedik eta Goiherri berdin dute amaitu zuten. Batzuk zein besteak nagusitu ziren ti-

raldi guztietan, eta euren arteko deman, berriz, berdinean amaitu zuten.

Hala, Gaztedi A eta Goiherri A dira kategoria horretako txapela janzteko favorito nagusiak. Bi talde nagusien ostean, Goiherri B sailkatu zen hirugarren. Aipatutako lider biren aurka galdu zuen, baina gainerako tiraldiak irabazi zituen. Atzetik, Gaztedi B, Mutriku, Goiherri-Akelarre eta Gaztedi C geratu ziren.

Halere, 640ko txapela ez da erabakiko Martiarturen itzalpean, Barrikan baizik. Udalerrri txiki horrek hartuko du txapelketaren finala ekainaren 18an, 17:30ean. ◀





Bolue utzi, eta 2011n Lezaman sartu zen Torre. Denboraldi honetan heldu da Athleticen lehenengo taldera.

# «Orain Kopa irabaztea da hurrengo helburua»

## Maddi Torre Larrañaga

Athleticeko erdilariak Espainiako Liga irabazi du, 20 urte gaz. Donostian jaioa, sopoloztarra da; Bizkerren jokatu du, eta Medikuntza ikasten dabil.

INIGO FERNANDEZ DE MARTIKORENA ►

**Lehenengo eta behin, zorionak.**  
Eskerrik asko!

**Zelan sentitzen zara, futbol-liga irabazi ostean?**

Egundoko pozaz. Hain gaztea izanda horrelako kontu bat lortzeak, egia esanda, meritu handia dauka. Taldea ere oso pozik dago: kristoren garaipena izan da. Askok kostatu zaigu, baina gura genuena iritsi zaigu.

**Milaka zalek [32.000 baino gehiago] eskatu diote klubari gabarra atera zedin. Zer deritzozu?**

Guk egin behar genuena egin dugu: liga irabaztea, eta txapeldun ligan sartzea, gainera. Gabarrarena ez da guk erabaki dezakegun kontu bat, eta klubak egiten du guretzat onena dela uste duena.

**Klubak erabakitakoagaz bat zatoz?**  
Esan dudanez, ez da guk erabakitzen

dugun kontua. Guk futboleant jokatzen dugu; hortik aurrera klubak erabakiak hartzen ditu, lortu ditugun emaitzen arabera.

**Zer iruditu zitzaizun Joseba Agirre zuen entrenatzaileak prentsaurreko bat bertan behera utzi behar izana kazetariok ez ginelako agertu?**

Oso gaizki. Guk egunero egiten dugu gure lana, ahalik eta hoberen; geneukan partida garrantzitsu haren aurretik kazetaririk ez egoteak min handia eman zigun, egia esanda. Ez da ulergarria, baina ez dugu haserretu gura;

**«Mirestekoa da Amaia Olabarrietak eta Saioa Gonzalezek egin duten lana; ikonoak dira»**

hori daborduko pasatu da, eta uste dut ohartarazpen baliagarria izan dela kazetariarentzat.

**Bizkerreko jokalaririk ohi legez, zelan ikusi duzu taldea Euskal Koparen atarian geratzea?**

Nik esperantza neukan finalera iritsiko zirela, baina 1-0 galdu zuten Eibarren, eta, beraz, atarian geratu dira. Baloratu egin behar da egin duten denboraldia: oso ona izan da, nahiz

eta beste bi talde apur bat hobeto ibili diren. Kopan ere, kanpoan utzi dituzte talde garrantzitsuak. Beraz, oso denboraldi positiboa izan da.

**Amaia Olabarrieta eta Saioa Gonzalez Bizkerreko eta Athleticen beterranoek futbol profesionala utzi behar izan dute, lesioak direla-eta. Zer esango zenieke?**

Zorteak izan dit, eta ikono bi horiekaz pasa ahal izan ditut hilabete batzuk aldagelan. Mirestekoa da egin duten lana. Bueltatzeko gogo handia zeukaten, baina, zoritxarrez, ezin izan dute lortu. Ni miraz nago euren beharragatik, eta pena handiz agurtuko ditut. Hain gaztea izanik eta hainbeste kontu ikasteko dut oraindik; atsekabetuta nago ezin izan dudalako eurakaz, behintzat, denboraldi oso bat disfrutatu, badakidalako oso futbolari onak izan direla.

**Zeintzuk dira zeure buruari ipini ditziozun hurrengo erronkak?**

Gustatuko litzaidake Athletic egaz den-dena irabaztea. Posible bada, orain Erreginaren Kopa irabazi gurago nuke, lehenengo aldiz. Klubak inoiz ez du Kopa irabazi, atarian gelditu da birritan, baina ez du irabazi, eta, halandaze, helburua, epe laburrean, Kopa irabaztea da. Tarte luzeagoi dagokienez, hurrengo urteotan ikusiko dugu nola doan kontua. ◀



Talde txapelduna. © ASTRABUDUAKO F. T.

## Astrabuduaren kadete-taldea Saloura doa

Domekan, ekainaren 12an, festa berezia egingo dute Astrabuduko Josu Murueta kultur etxean. 18:00etatik aurrera, Astrabuduako Futbol Taldeak umore- eta magia-ikuskizuna antolatu du. Bertan, besteak beste, Goizon Arrienek, Cristian Cabañerok eta Oliver aztiak hamaika truko erakutsiko dute, neska-mutilen eta helduen algarak sortzeko. Ekitaldi horren bidez, dirua bildu gura du klubak, Astrabuduako kadete B 2001 taldearen alde. Gaztetxoak ligako txapeldunak dira, eta orain sortu zaie nazioarteko txapelketara joateko aukera, beti ere behar duten dirua lortuz gero. Hitzordua hilaren 28an dute Saloun (Herrialde Katalanak). Belaunaldi berriak sostengatzeko, bost euroko dohaintza eskatu du klubak. ◀

## Ariane Casado osatzen dabil

Leioako Kirol Elkarteak jakinarazi duenez, Ariane Casadori astelehenan egindako ebakuntza ondo ateratu da. Casado Leioako Emakumeak B taldeko kapitaina da, eta kimuen entrenatzailea ere bada. Kapitaina pasaden otsailaren 2an lesionatu zen, belanean lotailu-haustura izan zuen-eta. Klubak berretsi du Casadogaz dituen harremanei eutsiko diela, osatu ostean ere. ◀

## Arenasek golegile bat fitxatu du

Arenas klub historikoak abiatu ditu daborduko 2016/17 denboraldirako prestaketak. Lehenengo fitxaketa Alvaro Romero Morillo eskuin hegalekoa izan da. Azuaga taldeetik dator Romero. Hirugarren Mailako Extremadurako multzoan, seigarren sailkatu da Azuaga. Sevillako futbolariak 20 urte ditu, azken denboraldian sartu dituen beste gol. Sevillako Nervion klubean ibili da, iaz Azuagara heldu arte. ◀

## Sudokua

|   |   |   |   |   |   |   |   |   |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
|   | 6 |   |   | 7 | 2 | 4 |   | 1 |
|   | 2 |   |   |   |   |   |   | 3 |
|   |   |   |   |   | 3 |   | 6 |   |
|   |   |   |   | 9 | 5 |   |   |   |
|   | 3 |   | 7 | 4 |   |   |   |   |
|   | 1 |   |   |   |   |   |   | 6 |
|   |   | 3 |   | 1 |   |   |   |   |
|   | 7 |   |   |   |   |   |   |   |
| 8 |   |   | 6 |   | 4 | 2 | 1 |   |

Gogoan har egizu 1etik 9ra arteko zenbaki denek agertu behar dutela zutabe, ilara eta azpilauki bakoitzean.

## Soluzioa

|   |   |   |   |   |   |   |   |   |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 7 | 1 | 2 | 7 | 3 | 9 | 6 | 5 | 8 |
| 5 | 4 | 3 | 6 | 8 | 2 | 9 | 7 | 1 |
| 6 | 8 | 9 | 7 | 1 | 5 | 3 | 4 | 2 |
| 9 | 6 | 5 | 8 | 2 | 3 | 7 | 1 | 4 |
| 8 | 2 | 1 | 9 | 4 | 7 | 5 | 3 | 6 |
| 4 | 3 | 7 | 5 | 6 | 1 | 2 | 8 | 9 |
| 2 | 9 | 8 | 3 | 5 | 4 | 1 | 6 | 7 |
| 3 | 7 | 6 | 1 | 9 | 8 | 4 | 2 | 5 |
| 1 | 5 | 4 | 2 | 7 | 6 | 8 | 9 | 3 |

## Horoskopoa



### Ura (Abenduak 21-Urtarrilak 19)

Lan-arloan, laguntza eskainiko dizute. Gutxien espero zenuen pertsona horrek harrizko zaitu, baina ez eman konfiantza lar.



### Otsoa (Urtarrilak 20-Otsailak 18)

Saia zaitetz argitzen zure bikotekidearekiko harremanak dituen arazotxoak, beti ere bere autonomia errespetatuta.



### Adarra (Otsailak 19-Martxoak 20)

Edozer erostekotan bazabiltza, arreta handiagaz ibili; gehienetan ez duzu asmatzen. Arineketan eginez gero, ez zaitetz kexa emaitzagaz.



### Aitzurra (Martxoak 21-Apirilak 19)

Luzaroan bilatzen ibili zaren hori lortzekotan zaude. Gogor ahalegintzeak emaitzak jasotzea dakar, ikusiko duzunez.



### Hostoa (Apirilak 20-Maiatzak 19)

Ondo ezagutzen ez duzun batek kalte handia egingo dizu mesede egiteko aitzakiapean, adia di ez bazaude.



### Eguzkia (Maiatzak 20-Ekainak 18)

Behar duzuna lortzeko, prest zaude edozer egiteko, baina besteak ez daude zuri edozein jarrera onartzeko prest.



### Garia (Ekainak 19-Uztailak 18)

Egitasmo berrien bati ekingo diozu hemendik gutxira. Aldaketak on egingo dizu, monotoniak larregi aspertzen zaitu-eta.



### Lastoa (Uztailak 19-Abuztuak 17)

Konpondu barik utzi duzun arazo batek buruhauste asko ekarriko dizu. Halere, arazoa epe laburrean diru-iturri bilaka daiteke.



### Iratzea (Abuztuak 18-Irailak 16)

Itxi bako arazoak bueltaka segituko du; zenbat eta arinago konpondu, hainbat eta lasaitasun handiagoa izango duzu.



### Meta (Irailak 17-Urriak 16)

Sozialki oso lanpetuta ibiliko zara; beraz, lanean aurrerakuntzak izateko une aproposa heldu zaizu oraingoan.



### Hazia (Urriak 17-Azaroak 15)

Zure bihotzeko kuttunak oparixoren bat egingo dizu. Bitartean, konturatu zara zuk ez diozula kasu handirik egiten.



### Negua (Azaroak 16-Abenduak 20)

Nekatuegi sentituko zara. Badakizu zure gorpuzak mugak dituela; baina lasai hartu, denboragaz sendatuko baitzara.

## Zorion agurrak



Bidali zeurea!  
publi@hiruka.eus  
94 491 13 37

5€



**AIURI**  
BERANGO  
Laukizko laguntxoentzako partez

Zorionak, Aiuri!! Zurekin bizitza konpartitzea sekulako plazera da!!!! Zoragarria zara! Asteburuan elkarrekin ospatuko dugu, muxu handi bat, eta disfrutatu poxpolin!



**JUAN**  
BARRIKA  
JBren partez

Zorionak, Gandiiii!! Joan den astean izan zen arren, ez zaitugu zorion agur gabe utzi nahi... barkaiguzu atzerapena! Pilo bat musu eta bizipoz, jaizale barrikotzar guztion partez!



**LAKA**  
ALGORTA  
Laguntxoentzako partez

Zorionak, Superlaka!! Ez zaizkizu zimurrak urte gehiago egiteagatik aterako, hainbeste barre egiteagatik baizik. Eta guk zurekin!!! Atera zurito batzuk eta goazen ospatzera... muua!



**NERE**  
ALGORTA  
Senideen partez

Zorionak, Neretxu!!! Urtebete gehiago; daborduko ez dira gutxi. Kar, kar. Guri bost axola zenbat betetzen dituzun, betiko irribarre hori mantentzen jarraitzen baduzu. Musu handi bat!!!

**GARAIZAR**  
BARRIKUNTZAK  
Eraikuntza zerbitzu integralak  
Ileeta, 1. 48991 ALGORTA  
94 430 52 43 - 607 952 977  
rgaraizar@gmail.com - www.garaizar.biz

**GURE ETXEA**  
taberna  
HAMBURGESAK, PINTXOAK ETA GIRO EDERRA  
Caja de Ahorros, 14 - Romo / T. 94 463 68 80

BORDATUAK  
EUSKAL JANTZIAK  
**AINGARA**  
Aurrezki kutxa, 18 - 48930 ERROMO-Getxo  
94 403 89 53 - www.bordadosaingara.com

**GetxoGas**  
GetxoGason  
Euskararekin  
bat!!  
Getxo eta Berango artean  
94 430 15 00

**OSABIDE** Hartz-Klinika  
Arantza Etxebarria  
· Odontologia orokorra  
· Ortodontzia  
· Periodontzia  
· PADI  
Bidebarri 27, beheko eskuina. ALGORTA - 94 430 75 96

**GOIZEAN**  
"Gozoki eta prentsa,  
gutxi denik ez prentsa"  
Prentsa - Fruitu lehorrak  
Aldizkariak - Librariak  
Orduña mendatea, 1. GETXO - 94 430 22 13

prentsa · aldizkariak  
**ITXASGANE**  
Getxoko kirol portua · 94 491 53 21



# Prentsa behatuz

## Euskal Hedabideen Behategia, martxan

**Behategiaren lehenengo urratsak** jendaurrean aurkeztu zituzten martitzenean, Leioako campusean. Hekimen euskal hedabideen elkarteak, EHUk, eta Mondragon zein Deustuko unibertsitateek osatzen dute.

IÑIGO FERNANDEZ DE MARTIKORENA

**E**uskarazko komunikabideek aspaldi izan dute munduan sortzen diren aurrerapen teknologikoak eta sektorearen mugimenduak antzeman, eta Euskal Herriko komunitate euskaldunera ekartzeko grina. Era berean, sektorea ikertzeko beharra defendatu dute antzinatek. Pasa den martitzenean, salto garrantzitsua eman zuten, Euskal Herriko hiru unibertsitatek batera.

Gorka Salces euskal hedabideen behategiko koordinatzailea eta EHUko Nor ikerketa taldeko kidea, Idoia Camacho EHUko Gizarte eta Komunikazio Zientzietako dekanordea eta Fernando Plazaola EHUko Ikerketarako errektoreordea izan ziren Leioako campuseko agerraldian. Euskal prentsa ikertu, behatu eta ulertzeko balio izango du Behategiak. Haren xehetasunak eman zituzten. Behategia sortzeko sinatze-ekitaldi ofiziala, pasa den urtarrilean egin zuten Deustuko Unibertsitateak, EHUk, Hekimenek eta Mondragon Unibertsitateak.

Salcesek azaldu zuenez, ordutik hona Behategia ez da geldirik egon. Euskaraz dabilzan komunikabideen eragin kuantitatiboa eta kualitatiboa neurtzeko tresna martxan ipintzeko ahalegin handia egin dute, eta, daborduko, bitarteko bi ipini dituzte ikerlarien, hedabideen eta euskaltzale orenen esku: *Behategia.eus* webgunea eta datutegia. Idoia Camachok azpi-

marratu zuen euskarazko komunikabideak aztertzen dituzten ikerlarietako askok eta askok EHUko Gizarte eta Komunikazio Zientzietako Fakultatean egiten dutela behar, eta, besteak beste, hori dela-eta, fakultateak euskal hedabideen Behategiari babes instituzionala ematen diola ziurtatu zuen. Webguneak, sakelako telefonoak, tabletak edo *on line* telebistak

**Behategia.eus-ek eskaintzen dituen «estatistikak zenbatu ezinak dira»: langileez, euskarriez, diru-laguntzez eta abarrez**

aztertzen diren garaiotan, dekanordeak gogorarazi zuen euskal prentsa ez dela komunitate euskaldunaren tresna berria; 1848an, Agosti Xahok argitaratutako *Uscal-Herrico Gaset*a ekarri zuen gogora. Apur bat orainaldira hurbilduz, 1976 «euskarazko kazetaritzaren urtea» izendatu zutela azaldu zuen Camachok; orduan egin zen Lehen Euskal Komunikabideen Astea, eta *Zeruko Argiak* aldizkariaren diseinua eta edukia goitik behera berritu zituen. 2004an, oster, Euskarazko Kazetaritzaren I. Kongresua egin zela oroitarazi zuen dekanordeak, argi islatu nahi izan du Behate-

giak ere «erronka handiak» izango dituela. Bidelagun izateko prestasuna agertu zuen Camachok, eta, pertsonalki, bere poztasuna agertu zuen behatze-erakundea sendotzeagatik, «fakultatean sartu nintzenean, bekadun, euskal prentsa izan zelako nire ikerketaren lehenengo eremua». Fernando Plazaola errektoreordeak gogoan izan zituen urtarrilean egindako sinatze-ekitaldia eta «gure kultura eta hizkuntza bultzatzeko» Behategia egiten dabilen «lan izugarria». Bere ustean, unibertsitateak lotura estua dauka informazioari lotutako fenomenoak ikertzeagaz. Emaizta eta fruitu asko espero ditu etorkizunean.

### Ikerketa

Gorka Salces otsailetik da Behategiaren koordinatzailea, eta ez zuen ezkutatu aurkezpena Leioako campusean egiteak ikerlari berriak proiektura erakartzea duela helburu. Izan ere, gaur egun 38 ikerlari dabilza euskal hedabideak aztertzen, baina kopuru hori «euskal komunikabideengan interesa duten» beste ikerlari, ikasle eta irakasleengana zabaltzea, elkarlanak sustatzea, eta lantzean behingo ekarpenak jasotzea dute erronkatzat. Bost talde dira gaur egun: Deustuko Euskal Gaien Institutua, Mondragoneko Hezikom eta EHUko Nor, HEKA eta HGH. Ikerketa-eremua, arloko gai orokorrez gainera, 138 komunikabide dira, nazio mailakoak zein tokikoak, digitalak, irratiak, telebistak edo paperezkoak. Haietako asko Hekimeneko bazkideak dira, horren bazkide da Tokikom, eta azken horren kide da HIRUKA Uribe Kostako komunikazio-taldea.

Behategiak «jarrera proaktiboa» erabiliz, erantzuna eman gura die euskarazko komunikabideen sektoreak aspaldian jasandako beharrei. Hekimen



sortu aurretik, Euskarazko Hedabideen Mahaiak, 2010ean, eta Herri Ekimeneko Euskal Hedabideek, 2012an, erakunde bat aldarrikatu zuten, sektoreaz hausnartzeko, ikerketa akademikoa eta komunikazio-egitasmo profesionalen arteko lotura eta elkarlana estutzeko. Beraz, «berrikuntzarako eta ezagupe-naren transferentziarako gunea» da Behategia.

Etokizunari begira, hainbat erronka eta helburu ipini dizkio bere buruari euskal hedabideen behatokiak: «batetik, aztertu nahi dugu komunikabideek zer ekarpen egiten dioten hizkuntza gutxituen biziberritze prozesuari», froga enpirikoen bidez. Bi arlo nagusitan kokatu dute ekarpen hori: lexikoaren estandarizazioa eta espazio soziofuntzionalaren eskaintza. Izan ere, orain arte behintzat, euskal

## Euskal prentsa ez da komunitate euskaldunaren tresna berria; 1848an argitaratu zuen Xahok *Uscal-Herrico Gaset*a

prentsak «euskal hiztun komunitateari komunikazio-esparru sendoa eskaintzeko jarrera» agertu izan du. Salcesen arabera, «beste ildo estrategikoetako bat da euskarazko hedabideen sektoreak komunikazio-paradigma sozial eta teknologiko berrian izan ditzakeen arazoak eta aukerak identifikatzea». Komunikazio-arloan, gero eta eragin zabalagoa duten aldaketa teknologiko berriak kontuan hartuta, alternatibak eta irtenbide batzuk proposatu gura dituzte, arazoei aurrea hartu, irtenbideek aurrera egin dezaten. Bestalde, ikerlariak ziurtatu zuen neurke-

tak egiteko «orain arteko tresnak gaindituta» daudela, eta, horregatik, «audientziak neurtzeko moduak birpentsatu nahi ditugu, eta neurketa berrietarako proposamenak hausnartu». Ildo horretan, neurgailu kuantitatiboak ez ezik kualitatiboak ere aldarrikatu zituen. Ildo berean, euskarazko hedabideak «eraginkorragoak izateko eta jende gehiagorengana heltzeko» gogoetak ere bultzatu gura ditu Behategiak, balizko publikoari begira.

### Webgunea eta datutegia

Behategiaren aurkezpena baliatuta, Behategia.eus ataria ere aurkeztu zuten pasa den martitzenean. Daborduko euskarazko komunikabideen gaineko hamaika ikerketa, datu, albiste eta txosten interesgarri topa daitezke bertan. Euskaraz ez ezik, material garrantzitsuenak ingelesez, frantsesez eta gaztelaniaz ere argitaratuko dituzte.

Publiko orokorrak makina bat «harribitxi» topatuko du datutegiko estatistika, neurketa, aurrekontu, langile-tasa eta aldagaien artean. Halere, datu guztiak ez dira egongo edozeinek ikusteko moduan; ikertzaileek eta komunikabideek eurek azterketak egiteko gordeko dira batzuk. Salcesek azaldu zuenez, garrantzi handiko ekarpena egin dio proiektuari Gaindegia Euskal Herriko ekonomia eta gizarte garapenerako behategiak bere datu-base demografikoa partekatu izanak. Zoritxarrez, Ipar Euskal Herriko datu denak ez daude, orain arteko atomizazio instituzionalaren eraginez. Behategiak interesa agertu zuen Helep elkargo berriagaz lan egiteko.

Horrez gainera, Hekimen euskal hedabideen elkartearen bazkideen 48 webguneen datuak batzen ditu Hekimen Analytics aplikazio ahalmentsuak, eta

datu horietarako sarbidea izango dute ikerlariak zein hedabideek. Horregaz batera, Hekimeneko hedabideek aurten bete duten barne-inkesta ere azterketarako bidea izango dute. Urtero berrituko dituzte datu horiek. Halandaze, webguneak eskaintzen dituen «estatistikak zenbatu ezinak dira»: komunikabideen egoitzen jabetzaz, langileez, euskarriez, «nahiko txalaparta sortzen duen gai garrantzitsu batez: diru-laguntzen eboluzioaz», eta abarrez.

Denen aurrean zabalduko diren informazioen artean daude hedabideen zerrenda, hedabide-motaren araberako sailkapena, haietako zeintzuk diren Hekimenen bazkide, eta, era berean, zeintzuk dauden Tokikomen batuta. Argibideak Euskal Herriko mapan modu txukunean eta hainbat koloretan koka daitezke. Gorka Salcesek iragarri zuenez, hemendik gutxira mapen diseinua telefono adimentsu eta tabletentzat ere egokituko dute. Bitartean, Salces beldur da «zeozterrek ihes egingo zigulako». Horregatik, Behategiari horren berri ematea eskatu du, zerbaiten falta igarritz gero.

Orain arte, datutegia osatzen eta webgunea hornitzen eta diseinatzen jardun du Behategiak. Hala ere, iragarri dute *Euskal Hedabideen Urtekaria* kaleratuko dutela aurten ere. Iaz, Behategia osatzen duten lau erakundeek elkarlanean osatu zuten lehenengo urtekaria. Aurten garrantzi handiagoa emango diote nazioarteko ikuspegiari. Era berean, euskal hedabideengan interesa dutenei gomendatu zien UEUko ikastaroetan parte hartzea, eta agendan urriaren 20tik 22ra bitartean libratzea: egun horietan egingo da-eta Digitalo Euskarazko Komunikazioaren Nazioarteko II. Biltzarra, Behategiaren laguntzagaz. ◀

## Orgabideondo (Sopela), 1933

Lehen/Orain



© JUANITA GARAI



Uribitakora

### TESTUA

Peru Vidal Gurrutxaga

### DOINUA

Aita izena

### ARGAZKIA

Hodei Torres

## Bunkerra

Bunkerretako iluntasuna da tristezia goibela, babeserako leku bikaina lur azpian dagoela; aldi berean erasorako estrategia itzela. Bada, begira, argazki honek erakusten du horrela: duela urte gutxi gurean gerra ohiko zerbait zela

Bunker barrua iluna eta itsusia dugu berez, orain aldatzen doaz kontuak aldatu behar direnez, aspaldi leku iluna zena apaintzen dute kolorez, irteerara doan pertsonak egin baino lehen ihes graffiti baten kolore biziz margotu du «GERRARIK EZ!»

Hemen gerrarik ez dugu orain nahiz sarri egon kolpeka, baina munduan zehar tiroka daude mila metraileta, ez dugu zertan ibili behar lubakietan gordeta, hortik irteten dagoen horrek dakarkigu gogoeta; bunkerretatik irten gaitezen bakea behar da eta!!!!



Uribitakoran parte hartu gura duzu? Bidal egiguzu atal honetan agertzea gura zenukeen argazkia eta bertan ikusiko duzu, ALBEko kideek jarritako bertso eta guzti: hiruka@hiruka.eus

Erakunde laguntzaileak:



EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak  
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua